

GAIA: HEZKUNTEK • ELKARRIZKETA: JOAN ESTRUCH • ESPERIEN-
TZIAK: KULTUR ANIZTASUNA • GALDEIDAZUE: ARANTZA OZAETA •
ARTIUM MUSEOA • ATZEKO ATETIK: OIHANE PEREA

hh
hik hasi

123

4 EURO • 2007KO ABENDUA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



BERRIAK

Suomiko Hezkuntza Sistema
bertatik bertara ezagutu dugu



MISS TXATARRA

Xabier Mendiguren
Patxi Gallego

(10 urtetik aurrera)



Katixa neska koxkor bat da, txatartegi batean bizi dena bere aitarekin.

Horrela doa Katixaren mundua baina, berak ezagutu ez duen amaren gainean gehiago jakin nahiko du...




ETZI

Karlos Linazasoro
Antton Olariaga

(12 urtetik aurrera)



Down sindromea duen hamahiru urteko mutiko baten historia kontatzen du, oso era egokian kontatu ere.



OLIBIA, RISKY, TXOP SUEY eta MOHAMED

Joxemari Iturralde
Mattin

(10 urtetik aurrera)



Riskyk eta bere koadrilakoek beti dituzte historia eta abentura interesgarriak kontatzeko, liburu honetan baina, Riskyren lagun koadrila handituz doa, beren ikasgelara atzerritarrak etortzen hasiak direlako.

aurkibidea



8
gaia

HEZKUNTEK

Euskal ikasleek mugak gainditu dituzte eta Iparraldetik Hegoalderako saltoa eman dute euskaraz ikasten jarraitu ahal izateko. Hezkuntek proiektuak horretarako aukera ematen die. Proiektu hori zertan den ezagutu nahi izan dugu.



16
elkarrizketa

JOAN ESTRUCH

Ikastetxeen autonomiak dituen aukera eta arriskuei buruz hitz egin dugu Joan Estruch irakaslearekin. Eskola autonomia kontzeptu zehatza ez den arren, ikastetxe batek bere heziketa proiektua lantzeko eta kudeatzeko duen gaitasun gisa uler dezakegula dio.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

HEZKUNTEK. EUSKAL IKASLEAK MUGAK GAINDITUZ

16 elkarrizketa

JOAN ESTRUCH

24 esperientziak

Antzerki topaketak Miarritzen

Antzerkilari txikiak euskaraz gozatzeko prest

26 ekarpena

Kultur aniztasuna

Auzotik eskolara eta eskolatik auzora

30 galdeidazue

Ikasleek ez dute esperientziarik ahozko hizkuntza jasoa hitz egiteko. Ahozko aurkezpenik apenas egiten da eskola garaian. Zer ondorio ditu horrek? Nola saihestu hori?

Arantza Ozaeta

35 berriak

40 nora joango gara?

Artium museoa

Museo hutsa baino gehiago

42 Atzeko atetik

Oihane Perea

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Olatz Lasagabaster. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Donostia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-XI-24). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararitzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

abendua

Zaila kanpoan aurkitzea gure hezkuntza beharrak asetuko dituen eredu magikorik



Ikastetxeko hezkuntza proiektua ongi zehaztea da gakoa. Gure hezkuntza beharretatik abiatuz, parte hartzea ziurtatuz eta elkarlana gauzatzuz, bidaia pedagogikoak lagungarri gertatuko dira, haietatik asko ikas bailiteke.

Ederra da bidaiatzea. Beste lurralde batzuetara joan eta beren esperientziak, lan egiteko erak, duten antolaketak, prestakuntza, bitartekoak, ildo pedagogikoak eta abar ezagutzea.

Batzutan, iruditzen zaigu gure hezkuntza beharrak beste nonbaiten asetuko dituztela. Horrela abiatzen bagara bidaia pedagogiko batera oso posible da huts egitea; normalean, ikusten duguna beste baldintza batzuetan garatutakoa izaten baita. Hizkuntza egoera bestelakoa delako, hango administrazio egituraketa, helburuak eta konpromisoak beste batzuk direlako...

Horrela, bada, baliagarri al dira antolatzen diren bidaia pedagogikoak? Gure ustez, bai. Batez ere, bidaia horien helburuak ongi zehaztuta baldin badiugu joan aurretik.

Ikastetxeko hezkuntza proiektua ongi zehaztea da gakoa. Gure hezkuntza beharretatik abiatuz, parte hartzea ziurtatuz eta elkarlana gauzatzuz, bidaia pedagogikoak lagungarri gertatuko dira, haietatik asko ikas bailiteke. Ziurre-

nik, hangoa ezingo da kalkatu, ezingo dugu hona ekarri eta kopiatu, baina baina ikusitakoa hausnarketarako baliatu, hitz egindakoaz gurea aberastu, bidaia egiten dutenen arteko esperientziak trukatu, eta abar.

Oinarria norberaren zentroan ongi finkatuta baldin badago, proiektu zehatzetan ari badira lanean, asko ekar liteke egoera beste bat dela kontuan hartuta. Gainera, egiten ari denaz hausnartzeko eta hobetzeko balio izaten du askotan.

Hezkuntza proiektua sendotuta ez izateak arrisku handia duela deritzogu. Jendartean gertatzen den gisa, modak iristen dira hezkuntza mundura ere. Orain informatika da garrantzitsua, gero konstruktibismoa, hurrengoan diziplina, beste batean ingelera, gaur emozioak eta bihar? Hezkuntza proiektua ongi finkatuta baldin badago, aurretik esandakoa lasai asko azter liteke, eta denetik ziur aski dezente ikasi ere bai.

Herri gisa egituratuta ez egoteak zailtasunak eta gertaera diskriminatzaileak dakartza berarekin askotan.

leak dakartza berarekin askotan.

Prestakuntzak hain garrantzia handia duenean, beste lurraldeetako hezkuntza errealitateak ezagutzea komenigarria denean, euskaldunok, gai horretan ere, ez dugu tratu bera: EAEn ez dago bidaia pedagogikoentzako ezer erregulatuta; hobeto esanda, ez da inongo laguntzarik eskaintzen. Nafarroan, aldiz, laguntzak dituzte kontzeptu horretarako. Eta zer esan Iparraldeari buruz?

Esaterako, Hik Hasik antolatu dituen bi bidaia pedagogikoetan (Italia eta Suomi) nafarrek jaso dute beren gobernuko dirulaguntza eta EAekoek ez.

Bestalde, hezitzaileok ez dugu Hezkuntza Sailak egiten dituen bidaia pedagogikoen berri, horretarako beharrezkoak diren bitarteko informatiboak ez direlako aurreikusten.

Gure ustez, informazio eta prestakuntza horrek pentsarazi beharko liguke pixka bat eta dagokienek behar diren neurriak hartu beharko lituzkete berdintasun eskubidearen izenean.

kronika

Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Curriculum dekretuarekin "Nafarroako errealitatean eta nortasunean eskua sartu" duela dio. Horren arrazoia, dekretu horrek "Euskal Herriko ikuspegi propioan oinarrituz, ikuspegi global, plural eta irekia eraiki nahi duelako da, bere eremutzat Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa beheera, Nafarroa eta Zuberoa jasoz". Alberto Catalan bozeramaileak azaldu duenez, beharrezko lege ekintzak egiteko prest daude "Foru erkidegoaren estatu politikoa, instituzionala eta soziala babesteko. EAEko arduradunek dekretua baztertu edo aldatzen badute, hobe, bestela epaitegietan ikusiko dugu elkar".



Ikastolek erakunde nazional berria izango dute aurrerantzean

Egun direnaz eta etorkizunean izan nahi dutenaz eztabaidatzeko prozesua zabaldu dute Euskal Herriko Ikastolek, hausnarketa iturri gisa. Gogoeta puntu nagusiak eta proposamenak bildu dira "Orain eta Gero" izeneko dokumentuan. Hori egiteaz arduratu da plenarioa izeneko taldea, hainbat zuzendari eta gurasok osatzen dutena. Txostenean jasotzen da, elkargoa deitu zaion erakunde nazionalaren ideia, ikastola guztiak bildu eta ordezkatu dituen erakunde berria.

"Orain eta Gero" dokumentuan barne antolaketa eta ikastolen izaera eta arlo didaktikoa jaso dira. Baita 2014. urtera arteko plan estrategikoa ere, lehentasunak markatzen dituena. Hurrengo hilabeteetan txosten horretan jasotakoa eztabaidatutako dute eta zuzenketak egingo dituzte ikastoleta-

ko kideek. Azken dokumentua datoren ekainean egingo den ikastolen VI. Batzarrak onartu beharko du.

Aldaketa nabarmenenak barne antolaketa ematen dira. Ikastola guztiak bildu eta ordezkatu dituen nazio erakunde sortzeko intentzioa dago, eta oraingoz elkargoa deitu zaio. Ikastolen izaera bereziagatik eta Euskal Herriko izaera administratibo zatikatuak behartuta, erakunde desberdinak ordezkatu dituzte ikastolak: Arabako Ikastolen Federazioa, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako ikastolen elkarteak, Seaska, EAEko Partaide eta Euskal Herriko Ikastolen Federazioa. Horiek guztiak jarraituko dute, baina nazio erakunde bat sortuko da denen ordezkari gisa. Ikastolen kolektiboa bera kudeatzeko eta zerbitzu komunak zuzentzeko ardura izango du erakunde berriak eta ikastola guztiak izango dira bertako bazkide.

Erakunde horren egitekoa ikastolen kudeaketa eta Euskal Herri osorako ordezkari organoa izatea izango da. Ipar Euskal Herrian, lege eta administrazio alorreko berezitasunagatik, Seaskaren esku jarraituko dute hainbat programek.

Ikastola guztiak osatuko dute Elkar goaren batzar nagusia, eta horrek bere gobernu batzordea aukeratu du. Gobernuan, gutxienez lurraldeetako erakunde bakoitzetik hiru egongo dira.

Ulertzea jakitea baino haratagoko zerbait da, dakizuna gure galbahetik pasatu eta sortzeko tresna bilakatzen baitu

Pedro Miguel Etxenike



EAEn 0 eta 18 urte arteko eskola ibilbidea zentro berean egiteko aukera izango da

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikasleek, 0 eta 18 urte artean ikastetxe berean egin ahal izango dituzte ikasketak. Hori da Tontxu Campos Hezkuntza Sailburuak Eusko Legebiltzarrean eginitako aurkezpenean azaldu zuena. Hurrengo urteetan indarrean izango den Eskola Maparen berri eman zuen sailburuak, eta hau prestatzeko erabilitako irizpide nagusiak aipatu zituen.

Eskola Mapa berriarekin, bi mota-tako ikastetxe publikoak izango dira, beren ikasleen adinaren arabera: 2 eta 12 urte bitartekoak eta 12 eta 18 urte bitartekoak. Dena dela, adin tarte desberdinetako ikastetxeek ikastetxe

bakar bat osatzeko aukera izango dute, curriculum diseinu eta zuzendaritza bakarrekin. Horrez gain, ikastetxeetako eta udaletako aginte organoek ongi ikusiz gero, hurbilen dagoen haur eskola publikoa ikastetxera lotu ahalko da. Hortaz, ikas ibilbide osoa kudeatu ko duten ikastetxe bateratuak egotea posible izango da. Orain arte, Hezkuntza Sailaren ikastetxeek ez dute 0-18 bitarteko ibilbide osoa eskaintzeko aukera hori izan.

Hainbat eragilek eskatu izan dute eskola maparen gaia jorratzea. Izan ere, 1996. urtetik, hamaika urte horietan ez da aldaketarik eman. Eskola mapa aldatzeko prozesua duela aste batzuk hasi zen, eta datozen hilabeteotan ekarpenak aurkezteko aukera izango da azken txostena egin aurretik, hortaz, prozesua ez dago itxirik.

Bestalde, Hezkuntza Sailak eskari handia dagoen ikastetxeetan ikastetxe berriak sortzeko borondatea erakutsi du. Era berean, taldeak sortzeko ratioak berrezarriko direla esan du sailburuak, baliabideak ahalik eta hobetoen kudeatzeko.

Datozen hiru urteetan, 436 milioi euro inbertituko ditu Hezkuntza Sailak ikastetxeak hobetzeko edota zentro berriak sortzeko.

Irungo bikote bat seme-alabak etxean hezitzearren auzipetu dute. Jatorriz estatubatuarra den familia batek, urtarrilean lau seme-alabetatik bi etxean heztea erabaki zuen. Hilabete batzuk beranduago, beste bi seme-alabek ere hautu berbera egin zuten. Azaroaren hasieran, adin gutxikoen fiskaltzan deklaratu behar izan dute, lau haurrak etxean hezteagatik. Haurren eskolako ordutegiak sortzen zizkien arazoak zirela eta, haurrei, etxean irakastea proposatu zieten. Orduan, Gipuzkoako hezkuntza ikuskaritzatik eskutitza jaso zuten, haurrak irailerako eskolara itzultzeko aginduz. Bete ezean, salatu egingo zituztela mehatxatuz. Gurasoek, berean jarraitzea erabaki zuten, "beraien eskubidea" dela esanez. Gainera, haurren hezkuntzan parte hartze handiagoa zuten oso gustura zegoen bikotea, eta baita seme-alabak ere, gurasoek diotenez. "Egun, lurralde askotan etxean heztea posible da horren alde borrokatu duten gurasoei esker. Legeak eta giza eskubideen aldarrikapenak babesten gaituzte".

GAIA

Hezkuntek

Euskal ikasleak mugak gainditzen





Mugak gaindi daitezke. Hori erakustera dator Hezkuntek izeneko proiektua. Duela lau urte jarri zen martxan eta Iparraldeko ikasleei Hegoaldean ikasteko aukera ematen die, ondoren, Frantziara joan gabe, Lapurdi, Behe Nafarroan edota Zuberoan euskal enpresak sor ditzaten. Euskara eta bertako ekonomia bultzatzea helburu duen proiektua da Hezkuntek eta hori lortzera bidean, ikasleek hainbat laguntza jasotzen dituzte.

Euskaraz hezi, euskaraz bizitzeko

Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan, Euskal Herriko gainerako herrialdeen moduan, laborantza izan da mendeetan zehar ekonomiaren ardatzerako bat. Baina egungo gizartearen eraginez, laborari kopurua urrituz joan da eta gero eta gehiago izan dira kanpora lanera joan behar izan dutenak edota Euskal Herrian bertan erdaraz, frantsesez, lan egin behar izan dutenak.

Ekonomia egoera horrekin eta euskararen erabilera eskasarekin kezkatu-rik jarri zuten martxan Hezkuntek proiektua duela lau urte eta arduradunak gustura daude gaur arte jaso duten emaitzarekin. Tokian tokiko ekonomia garatzeko, beste urrats bat izan nahi du Hezkuntek proiektuak.

Iparraldetik Hegoaldera

Hezkuntek egitasmoari esker, Iparraldean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu duten ikasleek aukera dute Hegoaldeko hiru herrialdetan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan) Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak egiteko. Baita unibertsitate arloko ikasketak egiteko ere; eta Lanbide Heziketa amai-

tu eta ingeniari-tza ikasketak egin nahi dituztenei ere laguntza ematen baitiete. Teknika arloko ikasketak egin ditzakete egitasmoan parte hartzen duten ikasleek, gehienak industriari lotuak, nahiz eta merkataritza edota laborantza ere eskaintza horretan sartzen diren. Ez dituzte beraz Goi eta Erdi Mailako Heziketa Ziklo guztiak eskaintzen.

Iparraldean Goi Mailako Lanbide Heziketa frantsesez egiterik baino ez dago eta eskolak Frantzian dira, gainera. Gazteok Hegoaldean ikasteak eta lan egiteak ikuspegi nazionala indartzen duela uste dute arduradunek. "Euskaraz hezi, euskaraz bizitzeko" lelorari jarraitzen diote eta gazteek euskaraz ikasi eta lan egiteko aukera izan dezaten nahi dute.

Azken helburua, enpresa euskaldunak sor ditzatela da; Iparraldeko gazte multzo bati ikasketak eta lehenbiziko lan esperientziak Hegoaldean eginez, biharko enpresak sortzen eta gaurkoak suspertzen laguntzea. Enpresa horiek euskaldunak izatea nahi dute baina ez hizkuntzari dagokionez bakarrik, baita kulturari eta filosofiari dagokienez ere.



G

Teknika arloa bultzatuz



Egitasmoa ezagutzen

Arduradunek Iparraldeko ikaste-
txeetan aurkezten dute proiektua eta
interesa duen ikasle orok eman deza-
ke izena Hezkuntek-en. Lehen urra-
tsa, ikasleei Heziketa teknikoaren ezagu-
taraztea da, Euskal Herrian dauden
eskolak, sareak, euskarazko forma-
zioak... zein diren azaltzen diete.
Hegoaldean euskaraz ematen diren
heziketa teknikoaren zerrenda propo-
satzen diete ikasleei eta herri, eredu
eta hezkuntza zikloi buruzko xehe-
tasunez gain, Goi edota Erdi Mailako
formakuntzak diren zehazten zaie.

Ondoren, lortutako tituluak Ipa-
rraldean zein Hegoaldean lan egiteko
aukera ematen du.

Elkarlanean egindako proiektua

Eusko Jaurlaritzarekin sinatu zu-
ten akordioari esker dute Iparraldeko
ikasleek Araba, Bizkaia eta Gipuzko-
an ikasteko aukera. Gipuzkon aritzen
dira gehienbat, alde batetik gertutasu-
nagatik eta bestetik, euskarazko es-
kaintza ere zabalagoa delako herrial-
de horretan.

Helburu nagusiak

www.hezkuntek.com web orrian argi eta garbi azaldu dute zein diren Hezkuntek egitasmoaren helburu nagusiak, nolabait ere proiektuaren filosofia biltzen dutenak:

- **Kalitatezko formakuntza euskaraz**
- **Bizi, hezi eta lan egin Euskal Herrian**
- **Langabeziari aurre egin**
- **Enpresa txikiak sortu; enpresa zaharrak berritu**
- **Etxetik hurbil euskaraz ikasteko aukera**



Hasieran, bi urtez jaso zuten Euskadi-Akitania erakundearen laguntza, hiru urtez Kutxak eman zien laguntza eta ondoren izenpetu dute akordioa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin.

Hezkuntak Iparraldeko elkarteak da baina Hegoaldeko elkarteekin aritzen da elkarlanean. HETEL Heziketako Teknikoko Elkarteak eta IKASLAN Lanbide Heziketako Institutu Publikoaren Elkarteak ikastetxe sareak Hezkuntza-eko partaide dira.

Ikasleen gastuak bere gain hartzea da Hezkuntza egitasmoaren berezitasunik handienetakoa bat arduradunek azpimarratzen dutenez, izan ere, ikasleek dirulaguntzak jasotzen baitituzte egitasmoa aurrera eramateko. Ikasleen matrikulazio eta egonaldi gastuak bere gain hartzen ditu elkarteak.

Aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen diete ikasleei eta jarraipen pertsonalizatua dute ikasturte osoan zehar.

Hezkuntza egitasmoaren eskaintza

Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Administrazioa
- Ibilgailu autopropulsatuaren mantentze lanak
- Elektrizitatea eta elektronika
- Elikagaigintza
- Eraikuntza eta obra zibilak
- Fabrikazio mekanikoa
- Informatika
- Kimika
- Mantentze lanak/ekoizpen zerbitzuak
- Merkataritza eta marketinga
- Laborantza jarduerak
- Zurgintza
- Altzarigintza

Goi Mailako Heziketa zikloak:

- Erdi Mailako Zikloen eskaintza bera, elikagaigintza izan ezik

Unibertsitate eskaintza:

- Teknika arloari lotutako titulazioak



Arduradunak eta ikasleak solasean

Mixel Etxeberri: "Herri ikuspegi batetik berrindartu nahi dugu industria Iparraldean"

Mixel Etxeberri Seaskako lehendakaria izan zen eta lan horietan ari zela hasi zen gai honen inguruko hasnarketa egiten. Baina, teknika arloan aurrerapausoak emateko oztopoak zituzten. Ikasle kopuru txikiak dira Lapurdi, Behe Nafarroan eta Zuberoan D ereduan eta bertatik ateratzen direnak ez dira aski eskola bat sortzeko. Ikasle guztiak Bigarren Hezkuntzako ikasketak amaituta, frantses eskolara joaten zirela ikusita, zerbait egin beharra ikusi zuten gazte horiek bideratu eta euskaraz ikasten jarraitzeko aukera izan zezaten.

Eskura zituzten tresnak baliatuz, aurrera jo zuten eta HETEL eta IKASLANekin harremanetan jarrita, Hezkuntek elkarrekin sortu zuten Iparraldean.

Seaskako Lizeoetako eskoletako ikasleak bideratzen dituzte baina beste ikastetxe batzuetatik ere animatzen dira ikasleak, euskaldunak direlako eta euskaraz ikasteko aukerarik badutelako. Ez dira asko egoera horretan, baina batzuk badira.

Mixel Etxeberriekin hitz egin dugu Hezkuntek egitasmoaren inguruan.

Duela lau urte jarri zen martxan Hezkuntek proiektua. Nolako erantzuna izan du?

Bi urteak hartuta (bi urte egiteko sartzan dira), dozena bat ikasle baditugu orain; aurten zuloa izan da, ikasle asko unibertsitatera joan direlako. Gure helburu estrategikoa teknikariak formatzea da baina helburu nagusia da, herri ikuspegi batetik Iparraldean in-



dustria berrindartzea. Ikasle horiek Euskal Herrian ikas dezaten nahi dugu, euskaraz, gerora hemen bertan euskal enpresak sortzeko.

Lehen promozioak hasi al dira enpresak sortzen edo lanean?

Enpresak sortzen ez, baina lanean bai. Bigarren faseari begira, helburu nagusiari begira lanean hasi gara eta gauzak nola antolatu behar ditugun ikusteko bilkurak egiten ari gara.

Enpresak sortzeko ere, ikasleek jasotzen al dute zuen laguntzarik?

Hala izatea nahi dugu, bai. Ez dago zehaztua oraindik, baina pauso hori eman nahi genuke. Aurrera begira hori da erronka nagusia; alde batetik, gero eta ikasle gehiago izatea eta bestetik, aholkularitza mota hori zehaztea. Ikusten dugu akaso trebakuntza gehigarri batzuk ere behar direla, zerengauza bat da oinarritzko ezagutza izatea eta beste zerbait da enpresa bat gidatzea. Horretarako formazioa bada eta hori ari gara

aztertzen orain.

Hezkuntek egitasmoan parte hartzen duten ikasleek euskaraz ikasten jarraitzeko aukera dute, baina zer gertatzen da gainerako ikasleekin?

Askok Frantziara joan behar izaten dute ikastera eta pena handia da. Batxilergoko nota hartzen dute eta zati bi egiten dute Hegoaldean ikasi ahal izateko batezbesteko nota ateratzeko. Hori ez da bidezkoa zeren ez dute ikasleak egindako lana kontuan hartzen. Ikasle bat ezagutzen dut adibidez, nere lagun baten alaba, nota oso ona zuen, 14, baina Hegoaldean hori zati bi egin eta 7 geratu zaio. Arkitektura egin nahi zuen Donostian baina 7,6 eskatzen ziotenez, azkenean Bordelera joan behar izan du ikastera. Pena handia da, pertsona euskaldunak ikastera Frantziara joan beharra. UNEDekin dugun arazoa hori da, beraiek kontrolatzen dituzte unibertsitaterako sarrerak eta ikasle asko kanpoan geratzen dira.



Gorka Elizetxe eta Iker Goienetxe

Hezkuntek proiektuan parte hartzen ari diren ikasleak

Bidarraitik eta Uztaritzetik Donostia-rako bidea egin dute. Bertan bizi dira orain aste tarteetan eta asteburuetan bueltatzen dira etxera Gorka Elizetxe eta Iker Goienetxe. Gorkak Donostian ikasten du Informatika Ingenieritza (lehenik Goi Mailako heziketa zikloa egin zuen Eibarren: Informatika Aplikazioen garapena) eta Iker Andoaingo soinu eskolan dabil. Gustora daude Donostian, esperientzia polita izaten ari dela diote eta oraingoz bertan geratzeko asmoa dute. Frantzia aldera joan beharrean, Euskal Herrian geratzeko aukera eman die Hezkuntek proiektuak eta ez dute zalantzarik egin: etxean, atzerrian baino hobeto.

Zer dela eta animatu zineten Hezkuntek proiektuan parte hartzera?

Gorka: Batxilergoko azken urtean orientazio saioetan ezagutu nuen Hezkuntek egitasmoa. Ni Donibane Garazin ikasten ari nintzen eta eskolara etorri ziren arduradunak proiektuaren berri ematera; interesgarria iruditu zaitzaidan eta beraiekin harremanetan jarri nintzen. Txikitatik ikasi dut euskaraz, Batxilergoko hiru urteak salbu, frantses eskola etxetik gertuago bainuen. Euskaraz ikasten jarraitzeko nahia nuen eta Hegoaldean ikasteak gaztelera ikasteko aukera ere eskaintzen dit.

Iker: Gure kasuan ere Lizeora etorri ziren aurkeztera. Nik soinu ikasketak egin nahi nituen eta Frantzia baino ezin nituen egin, animatu egin nintzen. Ez nuen beste aukerarik, Donostiara etorri edo Parisera igoztea. Bestela Bordelera, Tolosara... joan behar izaten dugu.

Beraz, arrazoi nagusia euskaraz ikastea baino, gustuko zenituzten ikasketak egin ahal izatea izan zen.

Iker: Bietatik. Dena den, niri hasieran ikasketak euskaraz zirela esan zidaten eta beranduago ohartu dira gaztelera zirela, baina behintzat Euskal Herrian ikasten ari naiz. Euskaraz

errealizazio klaseak bakarrik ematen dituzte, gaizki ulertua izan zen eskola eta Hezkunteken artean, baina tira. Euskal Herrian egotea eta euskaraz ikastea, horiek izan dira niretzat arrazoi nagusiak.

Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Iker: Oso ona. Oso giro ona dugu.

Eta zer asmo duzue ikasketak amaitu ondoren? Etxera bueltatu eta bertan lan egiteko asmorik duzue?

Gorka: Lehen urtea da eta oraindik ezin dut ezer esan. Baina lehen urtee-



Arduradunak eta ikasleak solasean



tan
Hegoal-

dean lan egitea gustatuko litzaidake. Hasieran Baionan edo inguruan lana aurkitzea zaila izango dela iruditzen zait eta gorago joan beharko nukeela, Bordelerantz edo, eta aukeran, nahia-
go dut Euskal Herrian geratu.

Iker: Nik aurten amaitzen dut eta ikusiko dut ikasten segi edo lanean hasiko naizen. Eta lana dagoen tokian egongo dut lan. Gero ikusiko dugu. Enpresaren bat sortzea ez dut guztiz baztertzen, baina oraingo ez dut horrelakorik buruan.

Oraingo beraz, ez duzue enpresarik sortzeko asmorik. Baina bideragarria izango litzatekeela uste al duzue?

Iker: Pentsatzen dut sektorearen arabera izango dela.

Gorka: Nik, Baionan informatika enpresa bat sortzea zaila ikusten dut. Hasieran ez da hori nire asmoa. Baditut lagun batzuk Frantzian ikasten ari direnak. Horietako batek ekonomia ikasten du eta aipatu zidan enpresa sortzearen ideia, baina ideia bat besterik ez da eta nik beranduago hitz egingo dugula erantzun diot.

Hezkuntza arloan desberdintasun handirik ikusi al duzue lehen ibiltzen

zineten eskolen eta oraingoan artean?

Gorka: Nik, etorri eta lehen egunetan, aldaketa handia sumatu nuen, hasteko, hizkuntzarekin. Hizkuntzarekin galduta nengoen; nik ulertzen nituen besteak baina ni ulertaraztea ezinezkoa zen. Euskaraz hitz eginda ere, inork ez zidan ulertzen eta azkenean nire euskalkia alde batera utzi eta euskara batuan hitz egin behar izan dut euskaldunekin elkar ulertu ahal izateko. Bestalde, ikasle eta irakasleen arteko harremana aurkitu dut; ni ibili nintzen Lizeoan ez zen ikasle eta irakasleen arteko harremanik. Irakaslea eskolarajoa zen, klasea ematen zuen eta kito, hor amaitzen zen guztia. Hemen Goi Mailako zikloetan beste harreman bat aurkitu dut, gertuago daude eta hori oso ona iruditzen zait.

Iker: Nik hori ez dut hainbeste antzeman. Bigarren Hezkuntzako ikasketak ikastolan bertan egin nituen eta



irakaslee-
kin harremanak gutxi gora behera berdina dira. Baina azterketei dago-
kienez, gure sistema bestelakoa da. Urtean zehar azterketa txiki batzuk egiten ditugu baina ikasturtea gainditzeko, urte amaierako frogak gainditzeko, urte amaierako frogak gainditzeko behar da eta hemen hiru hilabete oro azterketak ditugu.

Gorka: Unibertsitateko kreditu sistema ere berria da guretzat. Bestalde, ikasketen konparaketa egin nuen Frantzian ikasten duen lagun batekin eta badirudi gutxi gora behera berdintsu ikasten dugula baina Goi Mailako zikloetan, Frantzian maila altuagoa da. Baina tira, funtsean hezkuntza, hezkuntza da toki guztietan.



Durangoko azokan



ALDIZKARIA = AMAIUR egutegia



URTE osoko
harpidetza = Amaiur egutegia +
Karikaturna

NABARRA
www.nabarra.com

www.nabarra.com

joan estruch

ELKARRIZKETA

Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea

// Autonomiak garrantzia du, baina ez da hezkuntza sistemak dituen gaitzen irtenbidea //



// Ez da komeni eskolako autonomia eskola porrotaren erremediotzat jartzea, ez delako horrela. Eskola porrota ikuspuntu askotatik begiratu behar da, eta horien artean antolakuntzari dagokion atala ere aztertu behar da, baina kontua ez da eskola porrotari aurre egiteko eskola autonomia sustatzea soilik. Hori gehiegikeria da.

//

Ikastetxeen autonomiari buruz eta horrek dituen aukerei eta arriskuei buruz hitz egin dugu Joan Estruch-ekin. Hezkuntzan arituda lanean bere bizitza osoan: irakasle gisa, zuzendari gisa... Bartzelonako unibertsitateko doktorea, Bartzelonako Jaume Balmes institutuko katedraduna, Kataluniako pedagogia elkarteko kidea eta Hezkuntza Administrazioaren Europako foroko kidea da. Ikastetxeen kalitatearen eta autonomiaren gaian sakondu du, eta gaiarekin zerikusia duten hamaika artikulua eta liburu idatzitakoa da.

Estruchen arabera, eskola autonomia ez da kontzeptu zehatza, baina ikastetxe batek bere heziketa proiektua lantzeko eta kudeatzeko duen gaitasuntzat har dezakegula dio. Hori bai, haren iritziz, garbi dago sistema autonomia bideragarria izan dadin, irakasleak, zuzendaria eta zuzendaritza taldea ikastetxeko partaide sentitzea ezinbestekoa dela.

Eskola autonomia. Zer ezkututzen da kontzeptu zabal horren atzean?

Modan dagoen gaia da. Autonomiaz, askotan, ez da oso zehatz hitz egiten; pertsona batek edo bestek erabili, esanahia aldatu egiten da.

Hezkuntza sistemak funtzio berriak ditu, etengabe aldatzen ari da eta etengabe egokitzen ari zaie aldaketa soziali. Gaur egun, gainera, hezkuntza sistemak prestakuntza ideologikorako zuen funtzioaren zati handi bat galdu du. Estatuaren ideologiarekin bat datozen herritarrak prestatzeko funtzio hori, Frantzia eta AEBn ikusi da batik bat. AEBko eskolen helburu nagusia haur eta gazteengan nazionalismoa sustatzea izan da, eta, gaur egun, funtzio horrek balioa galdu du. Ideologia uniforme transmititzeko funtzio horrek lotuta, hezkuntza sistema eta denentzako berdina izango den curriculum sartu dira. Hori horrela da eskolatzea populazio osora zabaltzeak gastu handia dakarrelako eta era zentralizatuan kudeatzea zaila delako. Gainera, epe motzera behintzat, ez du hauteskunde onurarik ekartzen. Beraz, alderdi horiek guztiak kontuan izanda, esan dezakegu estatuak, orokorrean, hezkuntza transferitzeko joera duela. Estatuak ez du desegin nahi, baina hezkuntza sistemari lotutako zenbait betebeharrak gainetik kendu nahi ditu.

Eta zer gertatzen da orduan?

Profil profesional jakin batzuk prestatzeko funtzioa ere aldatu egiten duela hezkuntza sistemak. Gaurko produktio sistemarentzat, industrializazio garaian oinarritutako prestakuntza uniforme ez da egokiena. Orduan, muntatze kateek beren korrespondentzia zuten heziketa zentroetan: ikasle guztiek zituzten jarraibide berberak ordu beretsuetan, eta irakasleek heziketa prozesuen kontrolatzaile papera betetzen zuten, errepikakorrak, mekanikoak, berdina denentzat. Hori guztia lan munduan islatzen zen gero. Haurra eskolatik produktio kate batera iristen zen eta gauza bera egin behar zuen zortzi ordutan, sormenerako inolako au-

kerarik gabe. Baina orain ezagutzaren gizartean sartzen ari gara, eta gutxiene-ko kualifikazioa duen edozein langilek sormena izan behar du, aldatzeko eta egokitzeko gaitasunak izan behar ditu, eta testuinguru horretan, hezkuntza sistemak ezin ditu denentzako jarraibide eta curriculum berdinak zabaldu.

Bestetik, hezkuntzaren orokortzea dugu, zalantzarik gabe, lorpen sozial handia izan dena. Horrek ikasleen aniztasunera egokitu beharra dakar. Hezkuntza sistema populazioaren % 100 hartzen duen instituzio sozial bakarra da gaur egun. Hau da, herritar guztiok erabiltzen dugu osasun zerbitzua uneren batean, baina soilik hezkuntza sistemak du urte askotan pertsona batzuk bere baitan biltzeko aukera. Lorpen sozial horrek ikasleen aniztasuna kontuan hartzea eskatzen du, espektrua sozial osoa dugulako bertan, marjina- zio gordinenetik hasita, prestakuntza kultural handiko mailetara arte. Bada hezkuntzaren orokortzeak sortzen duen beste fenomeno bat, hain zuzen ere, derrigorrezko hezkuntza sisteman lortzen diren tituluek merkatuaren baitan balioa galtzen dutela eta prestakuntza selektiboagoak eskatzen direla, elitistagoak, promozio sozialarekin lotzen direnak eta populazio guztiaren eskura ez daudenak. Beraz, alde batetik populazio osoa eskolan dugu, baina, beste alde batetik, kalitate elitistagoa eskatzen da. Jada ez da nahikoa guztientzako hezkuntza zerbitzu publikoa egotea.

Beraz, gizarte desberdintasunek isla dute eskolan?

Bai. Hezkuntza sistema gizarte desberdintasunak errepikatzen dituen agertoki bihurtzen ari da. Haur guztiek dute curriculum bera edota ikasliburu bera baina, egiaz, eskolatik kanpoko desberdintasunak (bai familiarrak, bai sozialak...) errepikatu egiten dira eta eskolako porrota edo arrakasta, porrot edo arrakasta soziala bihurtzen da ia-ia. Horixe da gertatzen dena, arrakasta-porrota binomioa eskala indibidualean aurkezten dela hezkuntza sisteman; ez



duzu gaintu, besteak bai, ez zara saiatu... Profil sozial bertsuko gaixo asko daudenean, izurritea dugula esan nahi du, ez sintometan bat egiten duten gaitasun desberdinak ditugula. Hori ikustea kosta egiten da, ordea, eta hezkuntza, gaur inoiz baino gehiago, berdintasun sozialaren alde lan egiteko gunea da. Ikastetxeen autonomia, batez ere, izan ditzakeen ondorio sozialengatik balioetsi behar da.

Desberdintasunak alde batera utziko dituen hezkuntzaren alde egin behar dugu orduan, kalitateko hezkuntza baten alde. Zein dira hezkuntza kalitate horren balioak?

Hezkuntza kalitatearen balioak kanpokoak eta barnekoak dira. Indar gehien dutenak kanpokoak dira: familiaren maila soziala eta ekonomikoa, familiaren maila kulturala eta heziketa maila, eta ondoren etorriko liriteke hezkuntzan inbertitutako bitartekoak edo baliabideak, baina hirugarren maila batean.

Bestalde, sistemarenak berarenak diren barne faktoreak izango genituzke; hezkuntza sistemaren antolaketa eta ikasketa zentroa, esaterako, haur edo gazte bat ez baita bera izango ikastetxe batean edo bestean. Heziketa prozesuak ere garrantzia izango luke, irakasleak bertan esku hartzen baitu ikasleekin. Adituak beti saiatu izan dira horietatik guztietatik pisu gehien dutenak zein diren aztertzen. Coleman-en azterketa ere hor dugu. Horrek, ezta-

baidagarria den arren, erakutsi zuen ikastetxeak ez dituela apenas jatorrizko alde sozialak aldatzen. Tesi hori asko eztabaidatu zen, baina ez zuten guztiz baztertu, eta duela gutxi egindako azterketa batek dio ikastetxeak % 12 tik % 15era bitarteko eragina duela ikasleen emaitzetan. Datua ez da gutxiestekoa, eragin hori positiboa edo negatiboa izan daitekeelako. Horrekin esan nahi dut, autonomia, hezkuntza sistemaren antolakuntza koka genezakeela, baina ez dela sistemaren arrakastaren edo porrotaren panazea izango. Ez da komeni eskolako autonomia eskola porrotaren erremediotzat jartzea, ez delako horrela. Eskola porrota ikuspuntu askotatik begiratu behar da, eta horien artean antolakuntzari dagokion atala ere aztertu behar da, baina kontua ez da eskola porrotari aurre egiteko eskola autonomia sustatzea. Hori gehiegikeria da. Autonomiak badu garrantzia, baina ez da hezkuntza sistemako gaitzen irtenbidea.

Hortaz, hainbat ikuspuntutatik landu daitekeen kontzeptua da.

Bai. Eskolako autonomia ikastetxe batek bere heziketa proiektua lantzeko eta kudeatzeko duen gaitasuna dela uler dezakegu, zeina ikasleen emaitzak hobetzera bideratuta dagoen. Dimentsio asko ditu; baliabide ekonomikoak, baliabide pertsonalak, curriculum, eta abar. Ikuspuntu politiko-administratibotik begiratuta deskonzentrazio bati buruz hitz egin daiteke, adibidez, Frantziako estatuaren ere-

joan
estruch



E

// Autonomia proiektu bat martxan jartzerakoan helburu batzuk ezarri beharko lirateke, eta ikastetxeari erabakitzeko ahalmena eman beharko litzaioke. Amaieran, helburuak lortu diren ala ez ikusi beharko da, baina prozesuak kontrolatu gabe, ikastetxe bakoitzak erabaki dezakeen antolaketa eran esku hartu gabe.

//

duaren kasuan. Eredu zentralizatuen kasuan, kudeaketarako nolabaiteko transferentzia badago, baina erabakitze ahalmenari dagokionik ez. Ordezkaritzan berriz, autoritate transferentzia dago, baina hori delegatzen duen autoritatearen arabera. Eskualdatzeen kasuan, kudeaketarako independentzia duen unitate bat transferitzen da, baina baliabideak autoritateak ematen dizkio. Eta autonomiaren azken mailak pribatizaziora eramango gintuzke, hau da, estatuak autoritatea eta baliabide propioak transferitzen dizkio erakunde bati; osasun zerbitzua izan daiteke, hezkuntza sistema... Kasu horretan, sistema pribatu batean geundeke.

Eta, non koka dezakegu guri dagokiguna?

Gu bigarren mailan koka gaitzke. Funtzio batzuen ordezkaritza dugu, transferentzia autonomiko batzuk jasotzen dira hezkuntza ministeriotik, autonomiek ministerioak baino kudeaketa gaitasun handiagoa dute, eta curriculumen elkarren artean banatutako eskumenak daude. Curriculumaren % 55 ministerioarentzat, % 45 hezkuntza propioa duten erkidegoentzat, gutxi gorabehera. Baina gai politiko-administratibo horiek niri ez zaizkit bereziki interesatzen. Ikuspuntu soziologiko batetik hitz egin dezakegu.

Zer dakar ikuspegi soziologiko horrek? Nola ulertzen da autonomia horren arabera?

Autonomia ikuspuntu korporatibista batetik uler dezakegu, hau da, erakundeak bertan lan egiten duten profesionalak kontrolatzen dituzten kasuari buruz ari naiz. Nik uste dut kasurik ar-

giena unibertsitatearena dela; autonomia du, baina praktikan korporatibismo gehiegikeria izan da, plazak banatzerakoan, curriculumen diseinuan... Hezkuntzan lan egiten duten profesionalak, beraiek kudeatutako baliabide publikoez jabetu dira. Hori osasun erreforma bat sendagileen eskuetan uztea bezala litzateke, eta sendagileak errespetagarriak dira, jakina, baina hori ez da bidea.

Eskola autonomiaren bigarren mota bat ere badugu, neoliberala, eta zentroen arteko lehiarekin zerikusia duena. Eta, azkenik, badugu beste eredu bat, autonomiarekin eta ongizate gizartearekin bateragarria dena, eta lehiarik ez duena: integratua eta integratzailea.

Orokorrean esan dezakegu, beraz, eskola autonomia ez dela kontzeptu zehatza. Gure kulturak, gainera, autonomia balio positiboekin lotzen du, askatasunarekin, demokraziarekin, eta, ondorioz, karga positiboa duen kontzeptua da, bere alde jartzen gaitu. Nik uste dut hori alde batera utzi, eta zertaz ari garen zehaztu beharko genukeela. Autonomia mota desberdinen artean bereizketa egin behar da, eta martxan jartzeko asmorik baldin badugu, zer egiten ari garen, izan ditzakegun arazoak... aztertu behar ditugu.

Zertan aldatzen da egoera estatu batetik bestera?

Alde batetik, deszentralizatzen doazen estatuak ditugu eta, bestetik, zentralizaziora jo dutenak. Finlandia, adibidez, hezkuntzari dagokionez, munduan herrialde onena dela esaten da, eta oso pauso deszentralizatzaileak eman ondoren, zentralizaziorako pauso eman du. Esate baterako, curriculum nazionala du. Finlandia ez da nabarmentzen ikastetxeek erabaki ahalmen handia dutelako. Beraz, ezin dugu korrelazio zehatzik aurkitu zentroaren autonomiaren mailaren eta hezkuntza sistemaren arrakastaren mailaren artean. Autonomia hor dago, baina oraindik zaila da esatea zein ehunekoetan dagokion herrialdearen emaitza globalari, onerako edo txarrerako.

Dena den, orokorrean ikusten dugu herrialde gehienek deszentralizazioa jotzen dutela, eta gutxi batzuek hartzen dutela zentralizazio bidea. Europan, Grezia da zentralistena, eta beste muturrean Herbehereak ditugu. Estatu espainiarra zentralizazioaren aldean kokatuko genuke. Espainiako estatuan, zer erabakitzen du zentro bakoitzak? Bada, Bigarren Hezkuntzan, adibidez, ministerioak ez du ia ezer kudeatzen, baina bai autonomia erkidegoek, probintziako ordezkariak eta udaleko administrazioak. Ikastetxeak % 28ko erabakitze ahalmena du, eta Finlandiarekin parekatuta dago.

Zein ataletan erabakitzen du ikastetxeak?

Ikastetxeak erabakitze maila altua du arlo pedagogikoan edo curriculumean; ikasleak nola taldekatuko diren, zein metodologia jarraituko den, zein ikasliburu erabiliko dituzten, zein ebaluaketa irizpide erabiliko den... Erabaki horiek guztiak zentroak hartzen dituzten bere hezkuntza proiektuan. Beraz, atal horretan Frantziako estatua baino hobeto dago Espainiako estatua. Baina, langileen kudeaketari dagokionez, zentroak ez du langileak kontratatzeko ahalmenik, langileei dagokien politikan parte hartzeko ahalmenik... Sistema funtzionariala da eta administrazio autonomikoak erabakitzen dituzte gai horiek.

Baliabide materialetan ere defizita dago. Beraz, Espainiako estatuko zentroak oso gutxi erabakitzen du. Kanpotik esleitutako edo emandako aurrekontu batzuekin funtzionatzen du, eta tarte edo aukera gutxi dute gero hori egokitzeko edo bestelako diru sarrerak izateko. Beraz, esan dezakegu konbinazio arraroa dugula: curriculumari dagokion autonomia maila dezente altua, baliabide batzuk kudeatzeko eskumenarekin bat ez datorrena. Estatuaren zentralizazioa alde batera geratu da, baina zentralizazioarekin jarraitzen dugu, erkidegoetan bada ere. Nik dakidanez, ordea, inongo autonomia erkidegok ez du bigarren deszentralizatorik



egin, herrietara edo zentroetara transferentziak egiteko.

Zein dira autonomia ereduak edo mailak?

Autonomia maila bat neoliberal edo kompetentziazkoa izango litzateke, mundu anglosaxoiarekin lotura duena. AEBn eta Erresuma Batuan, adibidez, merkatuko legeak aplikatzen dira hezkuntzan. Hori Thatcherren garaitik dator, baina Blairrek ez zuen aldatu. Ikastetxeen ebaluazioa egiteko, gobernu zentralak kontrolatutako irizpide bat finkatzen da, eta, ondoren, ebaluazio horren emaitzak jakitera ematen dira. Komunikabideen bidez zabaltzen dira, eta, era horretan, familiek ikastetxe bakoitzak zer emaitza lortu duen jakiten dute. Jakina, euren seme-alabak matrikulatzerako orduan, informazio horrek pisu handia izaten du. Matrikula kopuruaren arabera ematen zaizkio baliabideak ikastetxeari; hainbeste ikasle, hainbeste diru. Beraz, ranking horretan hobekien geratzen diren ikasle gehiago izaten dituzte. Ongi dagoenak hobetzeraz jotzen du, baina gaizki geratzen denak hortik ateratzeko zailtasunak izango ditu, eta ikastetxea itxi egiten dute azkenean. Enpresa politika ezartzen da: enpresa defizitari bada, itxi egiten da. Hori da autonomia mota horren aplikazioa: ikastetxeak, zuzenean edo zeharka, ikasleak hartzea edo ez hartzea erabakitzen du, zer motatako familietako ikasleak joango diren, irakasleak kontratatzen ditu, soldatak zehazten ditu, curriculum alda dezake, aurrekontua erabaki dezake, eta akordio ekonomikoak egin ditzake hainbat enpresarekin edo nahi

duenarekin, eta hortik diru sarrerak handi ditzake. Eredu horretan, zuzendariak botere ikaragarria du, ikastetxeak aurrera egin dezan lan egin behar du, bestela bere lanpostua kolokan egongo da. Beraz, enpresa bateko politika mimetikoki aplikatzen zaio ikastetxeari.

Kudeaketarako konbinazioa ere bada. Erabaki autonomia oso handia da arlo guztietan, baina kanpoko kontrola ere badago. Hau da, kontrol zuzena urrutiko kontrol batek ordezkatzeko deitzen dutena: askatasuna ematen ditzuten, egin nahi duzuna, baina, ondoren kontuak eskatuko dizkizut, ea zer emaitza lortzen dituzun. Nire iritziz, horrela lan egiteak ikastetxeen arteko alde handiak sortzen ditu, batez ere, ikastetxe bakoitzak duen testuinguru sozialetik datozenak. Heziketa sistemak alde sozialak errepikatzen eta handitzen ditu. Aukera horren alde egitea, gizarte zatiketa sortzen duen autonomia baten aldeko apustua egitea da.

Eta zein dira gainerako ereduak?

Eredu latinoak, zentralizatzailea, litzateke beste bat. Frantziako estatuan eta, ondoren, Espainiako estatuan, Italian eta Portugalen ezarri dena. Administrazioak dekretuz hartu du deszentralizatzeko eta ikastetxeari autonomia emateko erabakia. Hau da, adibidez, datorren urtetik aurrera Italiako ikastetxe guztiak neurri jakin batzuk hartu beharko dituztela esatea. Hori ez da gauzak egiteko era, dena antzerki hutsa besterik ez delako azkenean eta arautze falta, nahasmendua, dakarrelako. Beraz, baditugu gauzak nola egin behar ez diren ikusteko adibideak.

// Benetako autonomia batean sartzeko beste era batera banatu behar dira. Irakasleek ulertu beharko lukete bere ikastetxetik hiru kilometrora dagoenak berak baino diru gehiago jasotzen badu, bere egoera bestelakoa delako dela. Hori ulertzea zaila da. Askotan autonomoak eta berdinak izan nahi dugu, eta hori ez da posible.



Frantziako estatuaren kasuan, zentralizazio maila altua da oraindik, ideologia errepublikar jakobinoak justifikatua. Estatuaren zerbitzu osoaren zentralizazioa herritarren berdintasunaren bermetzat hartzen da. Frantziako ikastetxeak Hezkuntza Ministerioaren menpe daude, eta ez dute eskumen autonomikorik.

Espaniako estatuaren kasuan berriaz, nahasketa dago. Alde batetik, lehen esan dudan moduan, pedagogian eta curriculumari dagokionez autonomia handia dago, baina hori ez da administrazioaren oparia izan, trantsizio-urteen eta erreformaren fruitu izan da, maila handi batean. Ikastetxeek administrazioak begi onez ikusten ez zituen irtenbideak bilatu eta kudeatu zituzten, eta, azkenean, administrazioak onartu egin behar izan zituen. Irakasleek euren arazoak konpontzeko erabakiak hartzen joan behar izan zuten, eta horrek erabakitzeak ahalmen handiagoa eman zien ikastetxeei.

Beraz, alde batetik, autonomia pedagogikoa dugu, eta, bestetik, baliabideen zentralizazioa, irakasle funtzionarioak eta baita beste gauza bat ere: autogestiotik gertu dagoen kudeaketa eredu bat, asanblearioa, trantsizioaren urteetatik datorrena eta eskola kontseiluan mamitu dena. Hori arraro samarra da Europan, Portugalen izan ezik ez baita horrelakorik. Beraz, oso koherentea ez den nahasketa da. Oso gutxitan egoten da argi bakoitzak zer egin behar duen, eta azkenean dena zuzendariaren eskuetara joaten da; denek agintzen dute eta denek exijitzen dute, baina ardura eskatu behar den garaian zuzendariarengana jotzen da.

Eskandinavian oso onak dira eskolako emaitzak. Ikastetxeen autonomia mailak ba al du zerikusirik horrekin?

Eskandinaviako ereduak, niri gehien gustatzen zaidana, konbinazio bat da. Ikastetxeak autonomia du, baina udal-erakundeak ere antzeko zerbitzuak gertatzen da: autonomia handia dute, ikastetxeak dena erabakitzen du,

eta hori migrazio tasa altuekin batera gertatzen da. Bertan bi eskola mota daude: zuriak eta beltzak. Zuriak bertako ikasleak hartzen dituztenak dira, eta beltzak etorkinak hartzen dituztenak. Autonomia handia, izaera babeslearen estatuarekin, ongizate gizartearekin, bateratu dute, eta eskola bakoitzak bere bidea egin dezan eta maila sozialeko zailtasunak bere kabuz konpondu ditzan saiatzeko dira. Gutxiengo etniko-erakundeak ikasleek eta zailtasun sozialak dituztenek besteek jasotzen duten diru kopuru bikoitza jasotzen dute. Dena den, eskola banaketa horrek ez du ezinbestean banaketa soziala ekartzen, eta Pisa foroetan lortutako emaitzek frogatzen dute ez dagoela halako alde-rik eskola batzuen eta besteen artean, emaitzak berdintsuak direla eskola txuri eta beltzetan.

Eskandinaviako herrialdeetan, berriaz, Finlandiak esaterako, migrazio tasa oso baxua du, eta bertako ezaugarri nagusia ongizateari lotutako municipalizazio hori litzateke. Eskolak programa sozialean parte hartzen du eta ikasle batek duen edozein arazori buruz (familiarra, soziala...) ikastetxea bera arduratzen da. Auzoak edota herriak ere esku hartzen du eskolan. Elkarlana dago eta eskolak babes handia du udalen aldetik. Han ere, deszentralizatorako prozesu motela egin zen, hezkuntza itun egonkorra egin zen eta aurrera jo zuten autonomia erlatibo maila hori lortu arte. Ikastetxeak udal-erakundearekin integraturik daude eta lurraldeko hezkuntza proiektuetan egiten dute lan; beraz, inguruko ikastetxeek proiektu horretan bertan parte hartzen dute, eta bakoitza ez dabil bere kasa. Horrek ikastetxeen arteko aldeak saihesten ditu. Eskola publikoak ari gara hitz egiten batez ere, pribatua oso murrizta delako. Kontuan hartzeko ereduak izango litzateke, ikusteko nola, eskola autonomiak ez duen ezinbestean alde sozialik ekartzen. Ikastetxe autonomoak dira; beraien zuzendariak eta irakasleak dituzte, ezagutzaren gizartearen aldeko apustua egiten dute...

Finlandian krisi ekonomikoak hezkuntzako aurrekontua haztea ekarri zuen. Zerbaiten aldeko apustua egin behar zuten, hezkuntzaren aldekoa izan zen eta oso ongi atera zaie. Beraz, hezkuntza kalitateari dagokionez, adibide da, ikasle gehienentzat berdintasuna lortzen baitute.

Nola banatuko lirateke baliabideak benetako eskola autonomiarik balego?

Gu zentralizatutako tradizio batetik abiatzen gara. Horren ondorioz, dena estandarra da, eta ikastetxe bakoitzari diru kopuru jakin bat dagokio. Teorian, ikastetxe guztiek diru kopuru berdina jasotzen dute, baremo batzuen arabera. Baina benetako autonomia badugu, baliabide horiek beste era batera banatu behar dira. Ikastetxe bakoitzak bere beharretara egokitutako baliabideak izan beharko litzuzke eta horrek aldaketa kulturala eskatuko luke. Irakasleek ulertu beharko lukete bere ikastetxetik hiru kilometrora dagoenak berak baino diru gehiago jasotzen badu, bere egoera bestelakoa delako dela. Baina hori ulertzea zaila da. Askotan esaten dugu: autonomoak bai, baina denak berdinak, eta hori ez da posible. Gauza bat ala bestea.

Ikastetxe guztiak autonomoak bada, beraien artean gaur egun baino alde handiagoak egongo dira. Autonomiakalde horiek areagotuko litzuzke eta familiek ere aukeratzeko askatasun handiagoa izango lukete.

Maila berekoa izan al daiteke autonomia, ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta itunpekoetan?

Bai. Hiru sareen arazoa ere hor dago. Nik esango nuke lehen arazoa irakaskuntza publikoan aritzen diren irakasleen arazoa dela, batez ere. Funtzionarioak diren irakasleak hezkuntza sistema osoa beraien inguruan biraka dabilela uste dute. Hau da, ikastetxeak tren geltoki edo aireportu antzekoak dira, eta bertan profesional batzuk elkartzen dira; baina ikastetxeak ez du aukerarik profesional horiek komeni

zaizkion ala ez esateko. Irakasle askok plaza jakin batzuk ongi datozkielako hartzen dituzte, eta, berdin zaie ikastetxearen proiektua zein den.

Eta, sistema autonomoan, irakasleak, zuzendaria eta zuzendaritza taldea ikastetxeak berak aukeratzeko dituzte. Ikastetxeko partaide sentitzen ez den jendea sartzen bada, horrelako proiektu bat bideraezina da. Nik argi eta garbi diot: eskola autonomia eta irakasleak funtzionarioak izatea bateraezina da. Ura eta olio dira.

Autonomia horrek izango al luke eraginik ikastetxearen ebaluazioan?

Bai. Bistakoa da, autonomia handiagoa izateak, erabakitze ahalmen handiagoa izateak, ondoren kontuak eman behar izatea dakar. Ebaluazioa egin behar da, baina beti ere erlatibo, hau da, ikastetxeak izan ditzakeen zailtasunetatik abiatuta. Agian, ikastetxea ez da iristen Euskal Herriko ikasleen batezbestekora, baina abiapuntua oso zaila baldin bada eta hobekuntzarik izan badu, ahalegin hori aitortu behar zaio eta oso positibotzat hartu behar da.

Autonomia proiektu bat martxan jartzekoan helburu batzuk ezarri beharko lirateke, eta ikastetxeari erabakitze ahalmena eman beharko litzazioke. Amaieran, helburuak lortu diren ala ez ikusi beharko da, baina prozesuak kontrolatu gabe. Jendeari helburu jakin batzuk lortzera nola iritsi nahi duen erabakitzen utzi behar zaio, ikastetxe bakoitzak erabaki dezakeen antolaketa eran esku hartu gabe. Autonomia ezartzeko erritmoa azkarregia da sarritan, ikastetxe asko dira, eta azkenean, horrekin zerikusirik ez duten plan estrategiko batzuekin nahasten da autonomia.

Autonomia interesgarria izan daiteke, betiere desberdintasunerako tresna bihurtzen ez bada. Beste gauza askorekin bateratuta, irakasleen politikarekin edota berdintasun sozialarekin adibidez, konbinazio ona izan daiteke. Baina autonomiak bakarrik, bere kasa, ez du ia ezer ekartzen, eta aurrez ditugun

baino arazo gehiago sor ditzake.

Autonomiari buruz, kontuz hitz egin behar al da orduan?

Bai. Zehaztu beharko litzateke zein autonomia proiektu eraman nahi den aurrera. Erritmo motelean egin behar da, prozesua begiratzen joatea ahalbidetuko duen erritmo motel eta etengabe, nola doan zuzentzen, hobetuzten... ikusteko. Bestalde, ikastetxeen beharretatik sortuko den autonomia izan behar da. Ez du balio goitik esatea memento batetik aurrera denek era jakin batean funtzionatuko dutela. Izan dadila ikastetxe baten heltze prozesu baten modukoa. Aldaketa, berrikuntza eta hobetze fase batean sartu den eta proiektu hori aurrera ateratzeko berezko antolakuntza moldeak behar dituen ikastetxe batean. Errezeta erraza da, ez du misteriorik: proiektua ongi pentsatu, martxan jarri eta babes guztiarekin eta kontuz nola doan begiratzen joatea.

Autonomiari denok oso itxura ona hartzen diogu, pentsatzen dugu administrazioaren kontrola ez dela hain handia izango. Baina gauzak ez dira horrela. Hezkuntza autoritateek irtenbide errazak bilatzera jotzen dute, egoeraren benetako azterketa egin beharrean. Irtenbide erakargarriak bilatzen dituzte guk begi onez ikusten dugu autonomia, ez dakigulako ongi zertaz ari garen. Eta ditugun arazoaren irtenbidea dela pentsa daiteke, baina ez da horrela.

Antzerki topaketak Miarritzen Antzerkilari txikiak euskaraz gozatzeko prest

Iazko ikasturtean hirugarren aldiz antolatu zituen Seaskak Ipar Euskal Herriko ikastoletako haurren antzerki topaketak. Emanaldiak Saran, Donibane Garazin eta Miarritzen izan ziren. Miarritzeko emanaldietan egon ginen eta bertan bizitzen zena ikusteko aukera izan genuen. Besteak beste, argi gelditu da haurrentzat berezia izaten dela emanaldien eguna.

Goizeko hamarretan bildu dira Ipar Euskal Herriko hainbat ikastolako haurrak Miarritzeko Pax aretoan. Hainbeste entseatu ostean, iritsi da beren antzerkiak eta kantu antzezpenak jendaurrean egingo dituzten eguna. Lerroetan isil-isilik eta euren kideak errespetatuz, ikastola bakoitzeko taldearen antzezpenak ikusten dituzte haurrek. Kanboko, Baionako, Miarritzeko, Uztaritzeko eta Angeluko ikastoletako haur taldeak dira, 5-7 urte bitartekoak.

10:00etatik 13:00ak artean zazpi emanaldik izan dute lekua. Hiru antzer-

ki, atsedenaldira eta ondoren beste lau. Lehoiak, saguak, esploratzaileak, antxumeak, otsoak... denak izan dira bertan, eta presentzia handia izan dute abestiek. Antzezpena egin aurreko minutuetan artega daude taldekideak, baina behin oholtzara igo ostean, alai, bizi eta dotore dabilta. Emanaldiak amaitu eta gero, Pax aretoaren inguruan dagoen belardira joan dira bazkaltzera, etxetik ekarritako ogitartekoekin.

Arratsaldean joko eta jolas askotarikoak egingo dituzte irakasleekin, Xiba jokoa, besteak beste. Eguna berezia da haurrentzat, baita irakasleentzat ere.





JANINE URRUTY irakasleari elkarrizketa

Nola sortu ziren topaketa hauek?

Idea Euskaraz Bizi ekimenetik sortu zen, Seaskaren baitan. Haurrek euskaraz hitz egiteko gero eta zailtasun gehiago dauzkatela konturatzen gara. Eskolan euskaraz egiten badute ere, ohartzen ginen eskolaz kanpo elkartzen zirenean frantsesez aritzen direla. Beraz, zerbait egitearren eta ezaguna dugunez antzerkiak hizkuntzarekiko duen onura, horrekin hasi ginen. Bes-telako interesak ere ikusi genituen: hizkuntza ikastea antzerkia praktikatzuz, elkarretaratzea, euskaraz hitz egitea...

Horren azpian badago beste zerbait oso garrantzitsua. Betijoaten gara beste batzuen ikusgarriak ikustera. Haurrekin egiten ditugunak bikainak direla ohartzen gara eta beraientzat ikusgarri bat baino askoz gehiago izan daitekeela uste dugu.

Nola lantzen duzue antzerkia?

Nire esperientziari dagokionez, urtean zehar antzerki bat lantzen dugu

ikasgela bakoitzean. Adibidez, Eguberrietarako antzerki handi bat egiten dugu 1. eta 2. zikloarekin eta gu 2. ziklokoak garenez, zati hori hemen egiteko apailtzen dugu. Nik 25 haur dauzkat gela, bi mailetan, beraz, lan asko da. Ez dugu urte osoan zehar egiten, beharren arabera antolatzen dut nire egitaraua. Adibidez, Hizkuntza ikasgaiaren antzerkia ikasketa hoberenetakoa da. Antzerkia ikasketa bikaina da gauza askotarako.

Haurrek gozaten al dute?

Bai, haurrak oso gustura daude. Asko gustatzen zaie eta gainera asko ikasten dute. Nortasun mailan biziki aberatsa da, beren beldurrak gainditzen eta errespetatzen ikasten baitute, antzerkian ez baita zernahi egiten. Beraientzat antzerkiak besteen aitzinean egiteagatik du interesa eta hori biziki aberatsa da hizkuntzarentzat. Haur bakoitzak antzerki osoa goitik behera ikasten du, gogoz.

Urduri jartzen al dira?

Bai, oso. Gaur egun dugun antzer-

Haurrak oso gustura daude. Nortasun mailan biziki aberatsa da, beren beldurrak gainditzen eta errespetatzen ikasten baitute

kiak ez du zerikusirik ikastolan egiten dugunarekin. Taulagain horretan galdurik zituzten beren erreferentziak, eta eskuin eta ezker ez zen Kanbon bezala. Baina antolatu dira, egin dute eta atera dira. Niri aldi oro galdetzen didate: ondo egin al dugu? Eta nik baietz esaten diet eta kontent dira. Adin horretan oraindik nigan sinesten dute!

Nolako emanaldiak egiten dituzue? Nola hautatzen dituzue gaiak?

Askea da, baina agerian da alegiak eta ipuin klasikoak asko gustatzen zaizkiela. Ni konturatu naiz, biziki moderno den gure gizarte honetan, haurrek biziki maite dituztela klasikoak, otsoa agertzen denekoak eta halakoak. Ipuin horiek funtsezko garrantzia dute.

Kultur aniztasuna: auzotik eskolara eta eskolatik auzora

Gasteizko Alde Zaharra eraldatzen ari da. Auzo zahar eta baztertua izate-tik eraberritua, txukundua eta hainbat jatorritako auzotar berriz osatutako auzoa izatera igaro da. Eraldaketa horren gakoa auzotarren eta bertako erakundeen artean osatu duten sarea izan da, hein handi batean. Sare hori eta egiten ari diren lana ezagutzeko, auzoaren erdian kokatuta dagoen eskolara jo dugu, Ramon Bajo ikastetxera. Sarearen barruan erakunde garrantzitsuenetako bat da eskola, familia etorri berrientzat lehen erreferentzia baita.

Auzoa eraberritzen ari da, eta horren seinale dira berritutako etxeak. Horrek bertako jende gaztea erakarri du. Bestetik, alokairuko etxeen prezioa gainerako auzoetako baino merkeagoa denez, etorkin asko bizi da. Edonola ere, denboraldi bat igaro eta gero, beste auzoetara joateko joera dute familia horiek.

Hiritako auzo zaharren moduan, Gasteizkoa ere oso aberatsa da kulturalki: arkeologia aztarnategia, katedrala, Montehermoso kultur zentroa, Artium gertu... Aberastasun handia dago. Instalazio aldetik ere ongi hornituta dago: gizarte etxeak, igerilekuak, pilotalekua...

Eta hortxe kokatzen da Ramon Bajo ikastetxea. Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditu, 2-12 urte bitarteko haurrentzat. Eskola txikia da, 124 ikaslekoa eta 22 irakaslekoa. Horren ondo-



rioz, denek elkar ezagutzen dute. Eskolaren berezitasunik nabarmenena kultur aniztasuna da: ikasleen % 70 etorkinak dira, herrialde ugarietakoak: Haur Hezkuntzan gehienak arabiarak dira eta Lehen Hezkuntzan arabiarak eta hegoamerikarrak.

Haur Hezkuntzan D ereduan irakasten dute eta Lehen Hezkuntzan A ereduan. Dena dela, aurten Lehen Hezkuntzako 1. mailan D ereduarekin hasiko dira eta urtez urte gainerako mailatan ere ezarri joango dira.

Auzotarren arteko sarea

Azken urteetan, bai eskola bai auzoko gainerako taldeak elkarlanean dabilta. Maria Pilar Melguizo Ramon Bajoko zuzendariak dioenez, "eskolak soilik ezin duela hezi konturatu ginen. Gu ordu batzuk egoten gara ikasleekin, eta hortik aurrera laguntza behar dute. "Giltzadun" haurren kasuan argi ikusten genuen. Horregatik, garrantzitsua

iruditzen zitzaigun haurrak bakarrik ez egotea, artatuta egotea heziketa ikuspegitik, eta horretan hasi ginen".

Era berean, auzoko taldeek ere elkarlanean aritzeko beharra sumatua zuten. Ana Garcia irakasleak dio jendea etortzen hasi zitzaiola euren laguntza eskainiz. "Kale-hezitzaileek haur guztiak ezagutzen dituzte, nahiz eta eskolarekin kontakturik ez izan. Eta haie-tako batzuk etorri zitzaizkidan elkarrekin aritzeko proposatuz".

Horrela eratu da euren arteko sarea: eskolaren aurrean dagoen gizarte etxean familia gehienek euren gizarte laguntzailea dute, eta eskolaren inguruan dituzte haurrek ludoteka, liburutegia, etxeko lanak egiteko lekua, igerilekua, musika eskola, eskolaren aldamenean euskal dantza taldearen egoitza, Saregunen informatika eta ordenagailu zerbitzua, Hala Bedi irratia... Eta den-denak elkarrekin harremanetan daude. Gainera, orain, auzo-

“Duela 3 urtetik hona, ikasleekin dudan harremana aldatu egin da, askoz ere harreman hurbilagokoa ezartzen saiatzen naiz pertsonalki. Ni asmo horrekin joaten naiz, eta dena gertuago ikusten dut. Ondorioz, gelan beste giro bat sortzen da: hurbiltasuna antzematen da”

ko Amanda taldeko zenbait lagun elkartzeko dira eskolan, auzoko elkarte guztiak biltzeko edo zerrendatzeko asmoz. “Eskolak eurekin parte hartu nahi du. Eskolaren asmoa auzoko eskola izatea da” dio zuzendariak. “Auzoan euskal dantza talde bat baldin badago, guk ez dugu beste bat sortu beharrik eskolan. Auzoko talde horrekin kolaboratu behar dugu, eta kito”. Elkarlan horrek, noski, guztiak aberasten ditu: eskolak auzotik jasotzen du, eta aldi berean, eskolak auzoa hezi eta eralda dezake. “Eskolaren bokazioa ez da soilik haurrak hezteko, auzo osoa baizik. Egiten dugun guztia auzora transmititzea nahi dugu”.

Guztiaren erdian haurrak daude, noski. Haur bakoitzaren inguruan sare sendo samarra osatuta dago, eta jarraipena egiten diote denen artean. “Hainbat egoera edo arrazoi direla medio, askotan haurrek ez dituzte gurasoak gainean izaten, eta osatu dugun sarearen bitartez jarraipena egiten saiatzen gara” azaldu du zuzendariak. “Kale-hezitzaileak ezagutzen ditugu eta eurek gu ere bai, haurrek haiekin hizketan ikusten gaituzte, aldiro bilerak egiten ditugu haurrekin esku hartzen duten pertsona guztien artean, etxekoekin etengabeko kontaktua daukagu... Nik uste dut gai-

nean egotea behar dutela”.

Eraldaketa gakoak

Horra iristeko, noski, hainbat ohitura eta lan egiteko modu aldatu egin behar izan dituzte. Oraindik ere eraldaketa fase batean daude irakasleak, pentsatzeko eta lan egiteko modua eraldatzen ari baitira.

Ana Garcia irakasleak dio aldaketa handiena harremanetan nabaritu duela. “Duela 3 urtetik hona, ikasleekin dudan harremana aldatu egin da, askoz ere harreman hurbilagokoa ezartzen saiatzen naiz ni neu. Gainera, batzuetan behar dutela iruditzen zait. Ni asmo horrekin joaten naiz, eta dena gertuago ikusten dut. Horren ondorioz, gelan beste giro bat sortzen da: hurbiltasuna antzematen da”.

Gurasoei ere hurbiltasuna transmititzen saiatzen dira. “Hori da niri gehien gustatzen zaidan gauzetako bat: laguntza eskatzera etortzea. Agian ezingo diegu zuzenean lagundu, baina beste leku batzuetara joateko bidea eman diezaiekegu. Gainera, ez dugu ahaztu behar etorkin askorentzat lehen erreferentzia garena, ez baitute beste ezer ezagutzen. Batzuek etxerik ez daukate eta ez dakite nora jo. Orduan, guk SOS Arrazakeriako telefono zenbakia eman diezaiekegu”, dio Maria Pilar Melguizok.

Tutoretzak ere aldatu dituzte: alderdi akademikoari baino garrantzi handiagoa ematen diote orain hauren bizitzari. “Askoz ere inplikatuagoak eta indartsuagoak dira orain tutoretzak. Ikasle bat bi egunetan ez bada etortzen eskolara, tutoreak ezin du egon zer gertatzen zaion jakin gabe. Haur bat faltatzen den une beretik telefonoz deitzen da etxera”. Azken batean, haurrei erantzun globala ematen saiatzen dira; hau da, eduki kurrikularrak lantzeaz gain, haur bakoitzaren egoera aintzat hartzen eta haren beharrei erantzuten. “Haur bat etxeko gela batean bizi bada beste bost pertsonarekin, eskolan hori aintzat hartu behar dugu eta jakin egin behar dugu, ez baita gauza bera logela bat beretzat bakarrik izatea. Jakin egin behar dugu haurrek zer bizitzen duten”

dio konbentzituratu zuzendariak.

Zailtasunak

Eraldaketa guztien modura, Ramon Bajon egin dutenak ere baditu zailtasunak. Bata klaustroaren ezegonkortasuna da. 22 irakasleko klaustroan bost irakasle baino ez dira finkoak, eta hiru zerbitzu batzordearekin daude. Gainerakoak urtero aldatzen dira. “Nahiz eta etortzen direnak inplikatu, badakite hurrengo urtean ez direla hemen egongo, eta horrela ezin diogu erantzun daukagun egoerari, ezin zaio jarraikortasun afektiborik eman” dio zuzendariak.

Beste zailtasun bat ikasleen mugikortasuna da. Ikasle batzuk ikasturte erdian etortzen dira, beste batzuk joan... mugikortasuna handia da. “Mugimendu bat dagoen bakoitzean taldea berriro kohesionatu behar da, eta horrek denbora eskatzen du”, gaineratu du Melguizok. “Irakasle gisa erantzun egin behar diogu horri. Horregatik, gutxienez irakasleak mantentzea eskatzen dugu, eta ez daitezela biak aldatu, irakasleak eta ikasleak”.



Kultur aniztasuna bizitzen: praktika onak

Auzoan kultur aniztasuna handia da, eta eskolak auzoko eskola izan nahi badu, aniztasunean oinarritutako heziketa landu behar du. Eta ez hori soilik: kultur aniztasuna ez ezik, kulturen arteko harremanak ere bultzatu behar dira auzoan, eta hori eskolatik bultzatu behar dela dio Melguizok. "Garrantzitsua da eskolan praktikak egitea edo horren adibideak ematea". Horren isla dira egiten dituzten honako ekintza hauek:

Amentzako eskola: orain dela 4 urte ikasleen amentzat gaztelaniazko eskolak eskaintzen hasi ziren. Izan ere, medikuarengana edo paperak egitera joateko, seme-alaben bila etortzen zirela ohartu ziren, eurak ez baitziren moldatzen ez euskaraz eta ez gaztelaniaz. Hori ikusirik, haurrak eskolan zeuden bitartean, euren gaztelania ikasteko aukera ematea erabaki zuten.

Erretiroa hartuta dagoen irakasle batek ematen ditu eskolak, astelehenetik ostegunera bitartean. Emakume asko animatu zirenez, bi taldetan banatzen dira, eta bakoitza astean bitan joaten da. Batzuk sekula eskolara joan gabeak dira, eta euren hizkuntzan ere alfabetatu gabe daude.

Helburua da ahal duten ondoen konpontzea, eguneroko gauzak jakitea, medikuarenean ordua eskatzen jakitea, egutegia ulertzea... Eta idazketari dagokionez, jakin dezatela euren izen-abizenak, helbidea eta data idazten. Alegia, behar dutena.

Harrera ona izan dute. Ama batzuk, nahiz eta haurrak eskolan ez eduki, joaten dira. Izan ere, auzoari irekitako eskaintza da.

Arabierazko eskolak: pena da haurrek euren ama hizkuntza galtzea

formalki. Etxean askok hitz egiten dute, baina alfabetatu ez. 12 urterekin haur bat euskaraz, gaztelaniaz eta arabieraz hitz egin, irakurri eta idazteko gai izatea izugarritzko aberastasuna da. Horregatik, arabierazko eskolak ematen dira haurrentzat eskola orduz kanpo. Erlijioarekin zerikusirik ez duten eskolak dira eta ama hizkuntza baloratzeko balio die. Beste eskola batzuetako haurrak ere joaten dira.

Hala Bedi irratia: ostiral goizetako programa egiteko, hilero edo bi hilean behin, eskolara jotzen dute Hala Bedi irratikoek. Inkestak, elkarrizketak, abestiak, errezetak... prestatzen dituzte irakasleek haurrekin, eta ondoren, grabatu eta emititu egiten dituzte.

Ijitoen elkarteko amak: animatzaile kulturalak egoten dira ama horiekin berriketaldiak egiten arratsaldetan 15:00etatik 16:30era. Eguneroko gauzez hitz egiten dute: hurrez, eskolaz, heziketaz... Hasieran ama ijitoak bakarrik elkartzen ziren, baina orain ama arabiarrek ere bai. Informatika ere ikasten dute.

Etxeko lanak egiten laguntzeko tarteak: aipatu animatzaile kultural berak haur ijitoei etxeko lanak egiten

laguntzen aritzen dira, 16:30etik 17:30era.

Munduko dantzak: 19:00etan munduko dantza ikastaroa egiten dute. Amentzat da eta helburua amak etxetik ateratzea da. Arrakasta handia izan du.

Kirola: kirolaren eta jolasaren bitartez kultur aniztasuna eta integrazioa landu nahi dira, eta auzoko proiektua da, hots, auzoko haur guztiei irekita dago. Kirol hezigarria lantzen dute: lehiakortasunik eza, taldeko lana, garbitasuna, osasuna, elikadura, autokontrola, gorputzaren kontrola... Kirol heziketako bi gazte arduratzen dira proiektuaz, eta eskolako zuzendariarekin zein ikasketa buruarekin etengabeko harremanean daude.

Auzoko museoarekin eta Artium-ekin elkarlanean: bi erakundeekin harremanetan eta elkarlanean daude.

Liburutegia: eskolako liburutegira etxeko lanak egitera eta irakurtzera joaten dira ikasleak. 17:30ak arte egoteko aukera izaten dute. Etxeko egongelaren funtzioa betetzen du, batzuek egongelarik ez baitute etxean.



EHIN ABENTURARI KOSMODISEA

ZIBERESPAZIOKO ABENTURA, KULTURA
EKINTZAILEAREN ETA DIGITALAREN
BALIOAK SUSTATZERA ZUZENDUA LEHEN
HEZKUNTZAN, DBHN, BATXILERGOAN
ETA HEZIKETA ZIKLOETAN.

**OSATU ZURE TALDEA
ETA PARTE HARTU!**



INFORMAZIOA:

www.kosmodisea.net

900 840 842

KOSMODISEA

GIPUZKOA
berrikuntza - lurraldea
territorio de innovación
www.gipuzkoaberrikuntza.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntza eta Jakintza Giza eta Gizarte Departamentua
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento



EUROPAR BATASUNA - UNIÓN EUROPEA
Europako Gizarte Funtza - Fondo Social Europeo

-REN EKIMENA DA

Ikasleek ez dute esperientziarik ahozko hizkuntza jasoan hitz egiteko. Ahozko aurkezpenik apenas egiten da eskola garaian. Zer ondorio ditu horrek? Nola saihestu hori



Irakasle Ikasketak egiten dabiltzan gure ikasle batzuk etorri berriak dira Herbereetatik. Erasmus programaren barruan, hango unibertsitate batean izan dira. Zoratuta etorri dira: “zenbat galdetzen duten *hango* ikasleek, zenbat hitz egiten duten, zenbat *dakiten*”... Guk, *hemengo* irakasleok, adin desberdineko ikasleekin aritzen garenek gure eskolan, nahiko genuke ahozko hizkuntzak toki gehiago izatea, ikasleek gehiago eta hobeto hitz egitea. “Zer egin? Nola egin?” galdetzen dugu irakasleok. Eskola orain arte idazketari (genero idatziei) loturik dagoen erakunde gisa ulertu dugu: eskolan idazten ikasten da, irakurtzen eta ulertzen ere bai. Eta trebetasun horiek dira seguru aski hizkuntzaren ikaskuntza prozesuaren erdigunean daudenak oraindik ere...

Hala ere, gizarteak gero eta trebezia handiagoa eskatzen digu ahozko adierazpenaren arloan. Gaurko gizartean beharrezkoa da “ondo hitz egitea”. Garrantzitsua da jendaurreko hitzal-



Arantza OZAETA

Ahozko Mintegiko kidea

HUHEZI. Mondragon Unibertsitatea

diak egitea, debate batean parte hartzea, disertatzea, akordioetara iristea. Herrialde baten demokraziarako garrantzitsua da herritarrak ahozkoan ondo moldatzea eta prestatzea. Eskolak gai hau planteatu behar du, eta, oro har, planteatu duela esan dezakegu. Orain

artean landu duguna, irakurtzea eta idaztea, ez dira nahiko gaur egungo gizarite post-industrialean. Gure kasuan, gainera, hizkuntza gutxitu batekin ari garela, “normalizazio” bidean jarri nahi duguna, ez dugu erabilera bermatua. Eta hizkuntza bat garatuko bada, funtsezkoa da gutxienez hizkuntza hori *hitz egitea*. Ahozko hizkuntzaren arazo konplexua da eta inplikazio askokoa.

Ahozko hizkuntzaren kompetentzia garatu nahi dugu, beraz. Ez gara hutsetik abiatzen, ordea. Ahalegin handiak egin dira euskal eskoletan hizkuntza garatzeko. Eta ahozkoa egin da, noski, irakasle/ikastetxe batzuek beste batzuek baino gehiago edo sistemati-koago edo kontzienteago egin dute agian, baina ahozko hizkuntza praktikatuta da. Orain, nolana ere, badakigu mintzamenalantzeko modua hobe daitekeela. Esate baterako, herrialde frankofonoetan azken urteotan pedagogiaren arloan sartu den berrikuntza na-

gusietako bat mintzamenarekin lotuta dago. Gure eskolak bizi duen egoera, ahozkoaren kezka, hobetu nahia, ez da, inondik ere, arrotza Europari begiraturuz gero: Belfasteko St Mary unibertsitateko Eibhlín Mhic Aoidh izan da urrian HUHEZIn bisitan eta Ipar Irlandan gaeliko murgiltze ereduetan ahozko hizkuntzari tarte gehiago emateko egiten ari diren saiakeren berri eman digu.

Ahozkoa bai, baina zer, zelan? HUHEZIn hizkuntzen departamentuan egiten ari garen proiektu baten indotik, bi alor ikusten ditugu ahozko hizkuntzaren ikas/irakaskuntzaren arloan. Batetik, gelako interakzioak ugaritzea eta sofistikatzea; eta, bestetik, ahozkoaren lanketa programatika diseinatzea, hau da, testu molde bat ikas-teko eta ikasitako hori ebaluatzeo sekuentzia planifikatuak diseinatzea.

Ikus ditzagun bi arlo horiek.

Gelako interakzioak

Gutxi dakigu gure herrian irakasleok *gelan* ditugun ahozko portaeren gainean. Zein portaera diskurtsibo daukazu, irakasle? Nola kontenplaten duzu ikasgela? Nolako galderak egiten dituzu? Irakasleek zer motako erantzunak jaulkitzen dituzte? Desafiatzen dituzu erantzunak? Kexu gara ez dutelako parte hartzen, galdetuta isilik gertzen direlako, “bai”, “ez”, “bost”, “gorria” erantzuten dutelako. Baliteke portaera horiek txikitatit barneratzen dituzten errutina batzuekin loturik egotea, gure eskolaren *kultura* batekin. Izan ere, zoritxarrez, gure eskolaren kultura ez dago oro har partehartzearekin loturik, hau da, gelaren elkarriketa dinamika partekatu batekin, ikasle-irakasle interakzioarekin. Gelako interakzio mota aldatuz, irakasleak gelan beste rol bat hartzean, ikasleek aukera gehiago dute partehartze luzeago eta konplexuagoak egiteko (konplexuagoak diskurtsiboki, morfosintaktikoki, kognitiboki).

Izan ere, ikusten ari gara irakaslearen berbaldiak funtsezko egiteko duela: alde batetik, ikasleen partehar-

tzean; eta, beste batetik, jakintzaren traetaeran. Irakasleak zer nolako estrategiak darabiltza? Interakzioaren ikuspegi honetatik, garrantzitsua ez da galde-tzea ikasleek zer ikasi duten *txekeatze-ko* (jakintzaren eredu erreproduktibo bat), baizik eta elkarriketa bat irekitzea *jakintza bera garatzeko* (curriculumaren trataera aberatsagoa, sorkuntza eta aurkikuntza bilatuz). Irakaslearen rola ezin da bereiztu, bere hautaketa metodologikoa ere ez. Ikuspegi “demokratiko” bat izatean, ikasleen emankortasuna bilatuko dugu: talde txikitant jardutea, hitz ematea, entzutea, entzunaren inguruan lan egiteko estrategia sofistikuak garatzea (galdera motak, esan dutena errebotatzea, konstatzioak, jarrera irekia, etab.). Modu honetan ikasleen arteko elkarriketak ere bultzatzen dira. Urruti gaude oraindik estrategiarik hoberenak zeintzuk diren identifikatetik, baina ikusten ari gara irakasle batzuek kontzienteki erabiltzen dituztela estrategia batzuk: aditze aktiboa, interakziorako diskurtsoa, etab. eta erantzun luzeagoak eta konplexuagoak jasotzen dituztela. Alegia, ikasleek ahozko hizkuntza (askotan H2), praktikatzeko eta bat-bateko autoerregulazioak egiteko parada dutela. Honek guztionek inplikazio metodologikoak ditu: irakasleok darabilgun metodologia ukitzen du. Metodologia tradizional batek ez du horrelako elkarriketarik kontenplaten.

Gelaren antolaketa ere ukitzen du interakzioaren alderdi horrek. Lanak talde txikitant planteatuz gero, ilarak eta biribilak apurtuz, irakasleak aukera gehiago du taldearekin gaia eraikitzen laguntzeko, taldeari egokitutako galdera finagoak, doituagoak eginez. Gela barruko komunikazioa sortzea, esanahiak elkarrekin sortzea dakar, ez da mezua transmititzea, elkarriketaren bitartez irakastea baizik. Interakzioaren perspektiba honek, jakintza elkarrekin eraikitzearen zentzuan, fokoa irakasle guztiongan jartzen du, eta ez soilik hizkuntza irakasleengan. Eskolako errutinek ikasleen parte hartze autonomo eta konplexuak lortzearekin

Herrialde baten demokraziarako garrantzitsua da herritarrak ahozkoan ondo moldatzea eta prestatzea. Eskolak gai hau planteatu behar du, eta, oro har, planteatu duela esan dezakegu. Orain artean landu duguna, irakurtzea eta idaztea, ez dira nahiko gaur egungo gizarte post-industrialean.



amestu behar dute.

Kontua ez da orain interakzioaren izenean hitz eta pitz aritzea ikasle-ikasle, ikasle-irakasle. Interakzioa emankorra izateko kokatua izan behar da eta interlokuzioa eskatzen du: asmo bat daukan solaskide bat topatzea, bere hitza aintzat hartzea, bere hitza zurean sartzea. Alabaina, ez da zuzena pentsatzea asko hitz eginez hobeto hitz egingo dutela. Andamiatze lanak egin behar ditugu irakasleok: norbaitek irakatsi behar digu jada egiten dakiguna hobeto egiten. Gure eskolaren arazotako bat ahozkoaren auzi horretan horixe izan da, zuzendu ditugula “joaten gara bibliotekara?, ikusi dotzut lehen”, etab., baina ez diegula irakatsi ondo egiten dakitena hobeto egiten: elkarriketan sakondu, pentsamendu konplexua garatzeko ziztatu. Ezta ere, prozesu bat azaldu, arrazoiak eman, zerbait azaldu.

Ahozko generoak lantzea

HUHEZIn hizkuntza ematen du-



Bi alor ikusten ditugu: gelako interakzioak ugaritzea eta sofistikatzea eta, ahozkoaren lanketa programatiboa diseinatzea, hau da, testu molde bat ikasteko eta ikasitako hori ebaluatzeko sekuentzia planifikatuak diseinatzea.

gun irakasleoi beti haserretu izan zaizkigu gure ikasle euskaldun zaharrak ahozko azterketak suspenditzean. Ama hizkuntza euskara izan, euskara "jatorra" izan, eta hala ere gainditu ez! Euskaldun zaharra izatea ez da inondik ere berme, ezta euskaraz eskolatu izana ere, ahozko disertazio jaso bat, berbazko ekoizpen planifikatua eta jantzia egiteko. Ahozko hizkuntzan arrakasta izatea asmoa adieraztea da, fokalizatzen jakitea, modalizatzen, esan ahala besteari moldatzeko erabakiak hartzen... eta hori praktikaren eta kontzientziaren fruitu dira, ez dira *berez* ikasten.

Ahozkoaren lanketak badu zer ikusia ahozko hizkuntza bera ikas-irakasgai objektutat hartzearekin. Bestela esanda, ahozko generoak sistematikoki lantzearekin. Ahozko hizkuntza unean-unean presente izatearekin batera (gelako interakzioak), jite pogramatikoa izatea. Gure eskoletan generoak lantzen ditugunean, zergatik egin azken xede guztiak idatzizkoak? Azalpenak, debateak, kontaktak, txiste lehiaketak, albistegiak, elkarrizketak, antzerkiak, boz gorako irakurketak, iragarkiak, bertsolaritza... Testu moldeok ahoz trebatzeko lanabesak dira, beren baitan, sekuentzia didaktikotan

antolatuta. Ildo honetatik, Joaquim Dolzek zioen "mintzamenak irakasgaia ere izan beharko luke"¹. Behar bada, etorkizunean izango dugu mintzamen irakasgaia martxan, baina bitartean ahozko jarduera-proiektuak egin ditzakegu, ikasleak ahozko ataza konplexu eta planifikatuak ekoizten. Hizkuntza praktikatzeko aukera eman behar diegu, eskola hizkuntza ikasteko eta hainbat erabilera "probatzeko" toki bat da. Zirkulu itxia da: berbara ekartzen ez den hizkuntza herdoildua gelditzen da eta ez da erabiltzen; erabiltzen ez dena ez da ikasten eta garatzen...

Hitz egin dezagun genero formalez eta informalez. Egia da gure hizkuntzak askotan ez duela erabilera informala ziurtatuta eta horretaz kontziente garelako. Hutsune hori betetzeko, besteak beste, hainbat eskolatan bertsolaritza lantzen da hizkuntza orduetan. Gure gizartean horrenbeste eta hain ondo errota dagoen praktika, hizkuntza aldetik horren aberatsa dena gainera, eskolak aprobetxatu nahi izatea oso normala da. Baina ez da nahikoa bertsolaritza lantzea "informal" delako hori lantzeko, eta ezta ere zuzena pentsatzea bertsolaritza dena denik informal (genero espektro ikaragarri zabala du: bertso afariko "informaltasunetik", txapelketa finaleko kartzelako gaiaren "formaltasun" eta solemnitaterainokoa). Bertsolaritza eskolara eramatea onuragarria da praktika sozial onartua, "bertakoa", eta aberatsa delako (hizkuntzaz gain, musika, kultura, trebetasun pertsonalak jorratzeko bide eman baitezake, ikus Bertsolaritzaren curriculum). Horiek horrela, ez du ezta konpontzen ahozko hizkuntza lantzeak dakartzan eskakizunak, gorago seinalatu ditugu batzuk.

Garrantzitsua da ahozkoa "ikusgarri" jartzea gure eskoletan: ikasleek eta irakasleek ikus dezatela ahozkoa, ahozko ekoizpenei garrantzia ematea, ez azpi-disziplina gisa tratatzea. Ahozkoa ikusgarri jartzeak behagarri eta ebaluagarri jartzeko kezka dakar. Ahozko hizkuntza lantzeak tresneria apur bat eskatzen du: kamerarekin

ikasleen grabazioak egin, nork bere burua ikustea eta entzutea, ikasleen gaitasuna aztertzea, ikasleen zailtasunak kontuan hartuta mintzamina lantzeko praktikak antolatzea, eredu onekin alderatzea, gorputzaren imintzioa, doinua, ahoskera... Praktika horiek berehala barneratzen dituzte ikasleek eta guri lan egiteko modu berriak irekitzen zaizkigu. HUHEZIn bertan ari gara jada horrelako proiektuekin erabat murgildurik. Motibazioak gutxi bazi- ren, orain badugu kanpo eragile bat ere: 2010.urterako Bologna datorrela eta, badakigu gure graduiko ikasleek (orain lizentziatu edo diplomatu esaten diegunek) ahozko aurkezpen bat egin beharko dutela ikasketen amaieran, graduiko titulua eskuratzeko.

Nondik hasi ez badakizu eta praktikak aldatu nahi badituzu, irakasle, zeure burua behazetik hasi. Idatzi egunkari bat, jaso gelan egiten duzuna. Zeure burua grabatu jarraian. Galdera hauek egin ikusitakoaren gainean: **zer gorduko nuke?, zer aldatuko nuke?, zer gehituko nuke?** (Olga Esteve, 2007). Galdera horiek ditugu gure hausnarketa eta gure transformazioa abiatzeko modu bat. Garapen profesionalerako ikasketa gure esperientzia eta gure praktikaren hausnarketatik abiatzea da kontua. •

1 Euskalnews aldizkaria, 352. alea

Kexu gara ez dutelako parte hartzen, galdetuta isilik geratzen direlako. Baliteke portaera horiek txikitatik barneratzen dituzten errutina batzuekin loturik egotea, gure eskolaren kultura ez dago oro har partehartzearekin loturik.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

abendua

berriak

Suomiko Hezkuntza Sistema bertatik bertara ezagutu dugu



Suomiko Hezkuntza Sistema ezagutzeko asmoarekin joan ginen azaroko lehen egun hotzetan Helsinki. 41 lagunek egin genuen bidaia eta bertako egoera ezagutzeko eta ulertzeko zenbait hitzaldi entzun eta hainbat eskola bisitatu genituen.

Urriaren 31ean iritsi ginen Helsinki. Apur bat egokitzeko hartu genuen arratsaldea eta hurrengo egunean unibertsitatean elkartu ginen guztiak Suomiko Hezkuntza Sistemari buruz lehen azalpenak jasotzeko. Lauri Kurvonen irakasleak egin zigun hezkuntza sistemaren argazkia: ezauzgarri orokorrak zein diren, hezkuntza sistemaren egitura nolakoa den eta hezitzaileen profila zein den ezagutarazi zizkigun beste gauza batzuen artean.

Lehen hitzaldi horrek, kokatzeko balio izan zigun eta behin oinarrizko datu batzuk edukita, portura abiatu ginen Suomenlinna uhartera eramant-

go gintuen itsasontzia hartzera. Hamaitetako egin ondoren, indarberrituta iritsi ginen irlara. Bi taldetan banatu eta eskola bana bisitatu genuen: batzuek Haur Hezkuntzako eskola, eta besteeak Lehen Hezkuntzako.

Ondoren, Suomenlinna ezagutzeko tartetxo bat hartu genuen eta denak bildu ginen berriro ere elkarrekin bazkaltzeko. Norberak jasotako inpresioak partekatzeko aukera polita izan genuen. Mahainguruan, eskola bakoitzean ikusitakoa azaldu genien beste taldekideei eta hausnarketa egin genuen ikusitakoaren inguruan.

Bigarren eguna ere, prestakuntzarako eguna izan zen. Bi taldetan banatu eta batzuek Haur Hezkuntzako eskola bisitatu zuten Vantaa herrian, besteak Espooko DBHko eskola batera joan ziren bitartean. Eskola bisitatu eta bertan bazkaldu zuten ikasleekin batera. Vantaara joan zirenak aldiz, Helsinki bueltatu ziren bazkaltzera National Board of Education-en egoi-

tzara, bertan entzun behar baikenuen bigarren hitzaldia. Leo Pahkin irakasleak ekitateari eta kalitateari buruz hitz egin zigun eta Pisa azterketetan lortutako emaitzen arrakasta faktoreen inguruan. Azkenik, unibertsitate bueltatu ginen Timo Riiho doktore eta hizkuntzalariaren hitzaldia entzutera. Euskaraz eman zigun Timok bertako hezkuntza sistemaren eta suomi hizkuntzaren egoera eta bilakaeraren berri.

Baina dena ez zen lana soilik izan eta Helsinki hainbat txoko ezagutzeko parada ere izan dugu Suomin izan garen bitartean. Estoniarainoko saltoa egin zuten batzuek, Tallinera joanda eta beste batzuk saunara joan eta laku hotzetan bainuak hartzen aritu ziren.

Esperientzia aberasgarria izan da guztiarentzat eta gure prestakuntza sendotzeko balio izan digu bidaia. Gustura eta gauza berriak ikasita itzuli gara Suomitik.





SAREANen XXIII. Topaketetan ordainsari berrien eragin kaltegarriak salatu dira

Azaroaren 15ean eta 16ean egin dira SAREAN elkartearen ohiko topaketak. Ostegunean, "Irakasleen lansariak, oraina eta etorkizuna" gaiaren inguruan mahaingurua izan zen sindikatuen artean. Ostiralean berriz, hainbat gaien inguruan lantaldeetan jardun zuten egunean zehar, irakasleen lansari desberdintasuna eta testuliburuak eta ikasmaterialak erabiltzeko programen inguruan.

Lehen ekitaldia sektoreko sindikatu guztiek, hots, CCOO, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT-ek, osatutako mahaingurua izan zen. Hezkuntza Sailak CCOOrekin sinatu zuen irakaskuntza

publikoko lan hitzarmenean jasotzen diren pizgarrien inguruan mintzatu ziren, ikastetxeetako zuzendaritza taldeetako kideen, tutoreen eta koordinatzaileen artean banatu beharreko ordainsarien inguruan. Mahainguruan jasotakoaren ondorioz, "une honetan sindikatu guztiak diru-pizgarri horiek irakasle guztiengana zabaltzearen beharra" ikusten dute.

Topaketetako lantaldeetan aztertu zen beste gaia "Testu liburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko Programa" izan zen. Egitasmo horrek ikasturte honetarako izan duen ofiziozko ezarpenak arazo asko



sortu ditu ikastetxeetan. Programa horretan izandako aurreko esperientziak ez dira behar bezain ongi ebaluatu eta ikasturte honetan bere aplikazioak izan duen eragina ere ondo aztertu beharko da arazo horiek ahalik eta azkarren bideratzeko.

UEUK 07/08 ikasturterako dituen erronkak aurkeztu ditu



Pili Kaltzada, Itziar Alkorta, Ana Zubiaga eta Lore Erriondo Bilbon egindako aurkezpenean.

Elkarlana, kalitatea, berrikuntza eta erreferentzialtasuna izango dira hurrengo hilabeteetan elkarrekin izango dituen ardatzak. Helburu horien isla moduan, genetikari buruzko mahai-ingurua eskaini du. Pili Kaltzadak dinamizatuta, gene aldaketak egiteko tekniken garapenak duen balioa ikuspegi zientifikotik eta etikotik aztertu dute Itziar Alkorta EHUko Zuzenbide irakasleak eta Ana Zubiaga Genetikan adituak.

Eskolarteko matematika narrazioen eta matematika ipuin laburren EMEE-anaya lehiaketak

Espainiako Matematika Errege Elkartearen dibulgazio sailak urtero antolatzen dituen lehiaketak dira horiek. Matematikaren dibulgazioa helburu, zientzia honekin zerikusia duten fikziozko ipuinak idaztean datza egitasmoak.

Alde batetik, 12 eta 18 urte bitarteko ikasleentzako eskolarteko narrazioen lehiaketa dago eta bestalde, guztiei zuzendutako (ikasle, irakasle eta beste edonor) ipuin laburren lehiaketa parte hartzeko aukera ere badago. Estatu mailako lehiaketa izan arren, narrazio eta ipuinak euskaraz aurkez daitezke. Lanak bidaltzeko azken eguna, abenduaren 31 da. Informazio gehiago izateko, jo www.divulgamat.net webgutera edota idatzi ribanez@divulgamat.net helbidera.

Ikastaroak

*Curriculum berria eta arlo kompetentziak







Noiz: Abenduaren 13an, 15:00etatik 17:00ak arte. **Non:** Lasarteko Berritzegunean **Informazio gehiago:** www.elkarrekin.org

*Haur Eskola eta familiaren arteko harremana

Noiz: Abenduaren 4, 6, 11, 13, 18 eta 20an. 17:00etatik 20:00ak arte. **Non:** Iurreta, Iurretako GLHB Institutua, Olaburu 19 (944668800) **Informazio gehiago:** www.ueu.org

*Ordenadorea, teknologia berriak eta biok: baietz ados jarri!

Noiz: Abenduaren 3, 5, 10, 12 eta 17an. 17:00etatik 20:00ak arte. **Non:** Beasain, Txindoki-alkartasuna institutua, Ugartemendi 6, (943880753) **Informazio gehiago:** www.ueu.org




Irakasle agurgarri, Durangoko Azokan zain gaituzu!



gaiak argitaldaria

San Bartolome, 36 behea 2007 DONOSTIA - Telefonoa/faxa: 943 471 304 - jjak@facilnet.es

argitalpenak




Bidaia handien atlas historikoa
Koldo Ortega eta Alizia Sturtze
GAIK

Hainbat mila urte iraun duten bidaldien abentura horietan, gehienetan interes handiak zeuden jokoan, eta, batez ere estatuaren finantza-euskarriak izan dira interesekoak. Hala ere, badira jakinminaz edota ezezagunaren bila doazenak ere. Liburu honetako 67 abenturek ongi erakusten dute gizakiaren arriskuzaletasuna •



Harri pintatzaileak
Martinez de Antoñan eta Mosquera
SAURE

David pinturari buruz guztia jakin nahi duen ikastun arduratsu eta gaztea da. Bere irakasle azkarrak, Messina maisuak, David denboran zehar historiaurrera eramateko modua asmatzen du. Biak artearen jatorrien bila joango dira, baina hara iristean, gauzak ez dira beraiek uste zuten moduan izango •



Osaba Patxiren koadernoia
Imanol Azkue

ZUMAIKOA INPERNUPE KULTUREL KARTEA
Oihana da liburuaren protagonista nagusia. Osaba Patxi koaderno bat emango dio opari, eta egunerokoak bertan apuntatzeko esango dio; zer egingen duen, zer gertatzen zaion, nahi duena. Koaderno gorria da, uztailduna eta liburuan aurrera egin ahala, egunero koarekin beteko du Oihanak. Testua Keixetaren irudiek osatzen dute •



Kirol Hezitzailea. Gogoetak eta Ekarpinak
Ed. Apail, Luis M. Zulaika Isasti
EUSKO IKASKUNTZA

Ikastaria hezkuntza koadernoaren 15. ale honetan, gorputz-hezkuntzako aditu anitzen gogoetak jasotzen dira. Egungo egoeraren azterketa, bere bila-kaera, kirolaren onura, kirol hezitzailearen lana, kirola eta balio etikoak, kirol arloko helburuak eta erronkak... aztertu dituzte •



Euskarazko jostailuen gida
Aisia biziz
URTIXINTXA

Euskarazko jostailuen gidak merkatuan aurki ditzakegun euskarazko jostailuen katalogoa eskaintzen digu, ESAR sistemaren arabera antolatuta eta dituzten ezaugarriak eta heziketa gaitasunak aipatuta. 2007an kaleratutako jostailu berriak azpimarratu dituzte eta horrez gain, jostailuak aukeratzeko gomendioak ere aurkeztu dizkigute •



Etzi
Karlos Linazasoro
ELKAR


Bruno izeneko 13 urteko mutikoaren bizipen berri izango dugu liburua irakurriz gero. Etxean asko estimatzen dute Bruno, musu indartsuak ematen dizkie gurasoei, bihurria da, maitagarria... Baina bere eserlekua hutsik geratu da. Irudiak Antton Olariagak egin ditu. 12 urtetik gorako gaztetxoentzako liburua da •

hik hasi

20.
monografikoa

Konstruktibismoa eta hezkuntza

Mario Carretero



Mario Carretero irakasleak Piaget, Vigotski eta Ausubelen teoria eta praktikak aztertu ditu eta modu oso ulerkorrean aurkeztu. Lana eguneratuta, euskaraz jarri du Lontxo Oihartzabal pedagogoak.

Horrela, bada, hain garrantzitsua den irakaskuntza esanguratsuaren oinarriak aurkezten dira monografiko honetan.

Durangon salgai!

... nora joango gara?

ARTIUM MUSEOA Museo hutsa baino gehiago

Koloreak, formak, materialak, egiturak, tamainak, eskulturak, koardroak, artelanak. Klean bertan, klean jaso ezin ditugun gauzak ikusteko, entzuteko, bizitzeko, aukera ematen digute museoek eta gaurko gizartea ulertzeko edota ikusteko aukera, arte garaikidea eskaintzen duten museoek. Horietako bat da Gasteizen dagoen Artium museoa. Artium adierazpen eta sormen gunea da. Gure ingurua beste era batera ulertzen laguntzeko asmoa du eta horri buruz hitz egin dugu Txaro Garaigorta, Artiumeko Hezkuntza Arduradunarekin.

Egunotan Artiumera gerturatuz gero Patricia Picciniren *izaki (samurrak)* izeneko erakusketa, *Errep(l)ika gaiak. Bilduma VII* erakusketa, *Ardoaren arkitekturak. Antiñon Bodega* erakusketa edota *Gamarratarak zinera doaz*, 40. eta 50. hamarkadetan Gasteizen ikus zitezkeen filmeak biltzen dituen zine zikloa ikus ditzakegu. Horrez gain, erakusketa iraunkorra osatzen duten lanak, liburutegia, hitzaldiak, ikastarok... topa ditzakegu Artium-en. Izan ere, museoa baino gehiago izan nahi du espazio honek. Hezkuntza arloari dagokionez, esate baterako, hezkuntza baliabidea izan nahi du. Ez dute ikastetxeak egiten duen beste irteera baten moduan ikusterik nahi, baizik eta curriculum osatzeko baliabide gisa.

Hori lortzera bidean lanean ari dira Artiumen eta ikasleen bisitekin sortzen dituzten unitate didaktikoak eta biltzen dituzten materialak gordetzen dituzte dokumentazio zentroan. "Ikasleek irudiak sakonki aztertzen dituzte eta oso garrantzitsua da beren ingurunea deskodetzen ikastea. Irudiak ulertzen erakutsi behar diegu, era azkarrean ulertzen, bestela etorkizunean begiradari dagokionez analfabetoak izango direlako. Arte garaikidearen zati handi bat begietatik sartzen da", dio Txaro Garaigortak, Artiumeko Hezkuntza Arduradunak. "Tailerrak kontzeptualak izan daitezen nahi dugu; ez dadila izan orain makilekin lan egiten duen artista bat ikusi dugulako guk ere gauza bera



egitea. Eskulenetatik haratago joan nahi dugu, interesatzen zaigu kontzeptualki hautematea artistak ideia batzuela eta ideia hori landu egin duela, argazki, zine edo instalazio forma emanaz. Gu tailerrera ideia horrekin goaz eta lanean hasten gara; ez da hainbeste gaitasun teknikoa, nahiz eta horrek ere garrantzia duen, baizik eta ideak irudikatzen ikas dezaten", dio.

Programa guztiak euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez eskaintzen dituzte eta ingeleseko eskaintza gustura hartu dute zenbait irakaslek: "irakasle askok zenbait ikasgai ingelesez eman behar dituzte baina ikastetxetik kanpo ez dute jarduerarik ingelesez eta hizkuntza horren praktika ikasgelara mugatua ge-





ratzen zaie. Museoa horretarako ezin-hobea da”, esan digu Garaigortak.

Zure neurrira programa

Museoko Hezkuntza Zerbitzuak eskaintzen duen programarik bereziena *Zure neurrira* izenekoa da. Maila guztietako ikasleei zuzendutako programa da, lau zatitan egiten da, lau astetan eta horrek konpromiso handiagoa eskatzen du irakaslearen aldetik. “Ikastetxera joaten gara eta programa eskatu duen irakaslearekin hitz egiten dugu bere beharretara moldatzen saiatzeko. Lehen kontaktu horretan planifikazioa egiten dugu, curriculumarekin zein den ikusten dugu, helburuak zein diren, ikasleak nolakoak diren... eta pieza horiek gure metodologian sartzen saiatzen gara. Programa urteko zein unetan egin dezakegun begiratzen dugu erakusketa jakin batekin koinziditzeko eta curriculumarekin lotzeko, eta guztiak horren arabera diseinatzen dugu”, azaldu digu Garaigortak.

Ikasleekin hiru zatitan gauzatzen da programa: lehenik, eskolara joaten dira eta ikus-entzunezko materialak erabiliz zehaztutako gaiari buruz hitz egiten diete ikasleei. Eta ondoren, beste bi saio egiten dituzte; bigarrenean, bi ordutan, museoa bisitatzen dute eta ondoren taldeak jarduera bat garatzen du tailerlean. Azken saioan, ikastetxera itzultzen dira ikasleekin eta programaren alderdi esanguratsuenak aztertzen dituzte eztabaida baten bidez. •



ARTIUM MUSEOA

Frantzia kalea, 24 - 01002 Gasteiz
Telefonoa: 945 209 000
museum@artium.org
www.artium.org

Oharrak:

- Bisita guztiak euskaraz, gazteleraz eta ingelesez egin daitezke.
- Bisita guztiak doakoak dira, Vital Kutxaren laguntzaz.

Hezkuntza zerbitzua

Adinaren arabera hainbat programa eskaintzen dituzte.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa

Zure neurrira

Programa horren bidez irakasleak aukera dezake zer gai landu nahi duen ikasleekin. 3 atal ditu:

- * Bisita prestatzeko saioa ikastetxean (ordubete)
- * Bisita ARTIUMera (2 ordu)
- * Azken bisita ikastetxean (ordubete)

Bisita gidatua

Bisita bakar baten bidez jarriko dira harremanetan ikasleak arte garaikidearekin. Bisita orokorra edota gai zehatz bati buruzkoa izan daiteke. Ordu beteko iraupena du.

Lantegi-bisitaldia

Museoaren bisitan aztertutako obrekin zerikusia duen tailer praktikoa bat egiteko aukera izango dute ikasleek. 2 orduko iraupena du.

DBH eta Batxilergoa

Loturak

Zinema eta arte garaikidea harremanetan, eguneroko gaien azterketari, eztabaidari eta hausnarketari atek zabaltzeko asmoa du programak. Ikasleek film bat ikusi ondoren, erakusketa aretoetara joango dira zenbait obra aztertzerako. DBHko bigarren ziklorako eta Batxilergorako programa da. 3 orduko iraupena du.

Loturak +

Loturak programaren bidez museoan ikasitakoa sakontzeko, ikastetxean beste saio bat egitea proposatzen dute. Gasteizko DBHko bigarren ziklorako eta Batxilergorako.

Irakasleen prestakuntza

Irakasleen prestakuntzarako zerbitzua ere eskaintzen du Artiumek, bere programa artistikoari buruzko hezkuntza saio laburrak eskainiz.

atzeko atetik



Oihane PEREA

BERTSOLARIA

Badaukat lagun bat oso kezkatua bere hamar urteko alabak ez duelako ia irakurtzen. Bere gelako baten batek udan 30 liburu irakurri dituela eta berak ezer ez. Nik esan diot beharbada udan 30 liburu irakurri dituen haurarena kezkarriagoa iruditzen zaidala, baina ez dut lortu konbentzitzea.

Izatez ez dut diferentzia asko ikusten udan 30 liburu irakurri dituenaren eta Nintendoan jolasten egun osoa pasatzen duen hauraren artean. Bat handitan idazlea izango da beharbada, bestea informatikari bikaina, baina nolako harremanak izango dituzte gainerako pertsonekin?

Irakurzaletasuna txikitatik bultzatzearen aldekoa naiz ni ere, baina gauzak nola egiten diren, emaitzak oso desberdinak izan daitezke.

Irakurzaletasuna

Neure haurtzaroari begiratzea gus-tatzen zait horrelakoetan. Zer egiten nuen nik 10 urterekin uda sasoiari? Seguruenik kalean jolasten pasako nuen eguna, edo herrian, udalekuetan beharbada, gurasoekin oporretan edo lehengusu-lehengusinekin igerileku-an... irakurri, zerbait irakurriko nuen, baina ez zen oso garrantzitsua izango, zeren ez daukat gogoan garai horretan irakurritako libururik. Oraingo haurrek bezala, ikastolatik bidalitakoak irakurtzen genituen guk batez ere, "Asterix eta Obelix" salbu, geure kabuz liburuenganako interesa piztu arte.

Hala ere, irakurmena lantzeko modu bitxia erabiltzen genuen ikastolan, eta ez nuke aipatu gabe utzi nahi: irakurtzeko abiadura kronometratzen zигuten. Helburua azkarrena izatea zen, jakina. Egia esan, niri beti gustatu izan zait patxadaz irakurtzea, irakurtzen nuena ondo ulertzea eta sekretu berriak deskubritzea. Horregatik irakurgai bat jartzen zigutenean, beti nintzen amaitzen azkenetarikoa, eta irakurle

txarra nintzela uste izan dut beti.

Gerora, institutuan konturatu nintzen, jende askok azkar irakurri arren ez zuela irakurritakoaz piperrik ulertzen, eta nik, neure erritmora irakurri ondoren, ez nuela gauzak bi aldiz irakurri beharrik ondo ulertzeko.

Denborarekin ikasi dut garrantzirik gabeko gauzak azkar irakurtzen, zenbait gauza patxadaz eta gustura irakurtzen, astunak egiten zaizkidan orrialdeak pasatzen eta hiztegia ahalik eta urrunen edukitzen. Zeren, hiztegia aberas-tea oso helburu polita izan arren, eza-gutzen ez dituzun hitz guztiak azpimarratu eta hiztegian bilatzea irakurzaletasuna bultzatzeko modu eskasa iruditzen zait.

Haurrak irakurtzera animatzeko motibagarriak diren irakurgaiak emateaz gain, gustura irakurtzeko estrategiak jarri behar zaizkie eskura. Horieta-ko bat *zapping*-a egitea da. Liburu bat hasi eta ez bazaizu gustatzen, utzi eta hartu beste bat. Guk egiten duguna, azken finean.



Barbie panpinak benetako neurriak izango balitu, bere neurriak 99-60-84 izango lirateke. 2,15 metro neurtuko luke.

Iturria: Internet

Natur Polis

NOBEDADEA

Erakutsi ezazu
ingurumena
zaintzeko gai
zarela galderak
zuzen erantzunez
eta lortu itzazu
puntuak Lohiker
maltzurri
aurre egiteko.



urtetik
8
gorakoentzat

27€

ARGIAren
hapidedunek
%15eko deskontua



Pirritx eta Porrotx

DVD



- "Mari Motots" ikuskizuna, 2007ko urtarrilaren 10ean Andoaingo Bastero Antzokian zuzenean grabatua.
- "Eman lata" Mendebaldeko Saharar herriaren alde, pailazook 2007. urtean Tindufeko Kanpamenduetara egindako bisitaren kronika.
- "Pirritx eta Porrotx gaztetxean", Tolosako Bonberenari buruzko erreportajetxo.
- "Gamusinoen bila" jaiaren inguruko erreportajetxo eta bideoklipa.
- "Mendi gure laguna", bideoklipa.
- "Korrika txikia", bideoklipa.
- Karaokeak.
- Abestien partiturak, inprima daitezkeenak (DVDak dituen PDF artxiboan bidez).



18€

16€



Disko-liburua 18 kantu + 28 orrialdeko liburuxka

Pirritxek eta Porrotxek badute lagun bat, zu bezain maitagarria, Mari Motots. Orain ez du mototsik, gaixorik dagoelako. Minbizia du, eta sendatzeko botikak ilea erorarazten dio. Ile kizkurak berriro atera bitartean, koloretako zapia janzen du buruan eta piratetan jolasten da Joxe piratarekin. Pailazook bisita egingo diote ospitalean. Han bihotza sendatzen duen dantza ikasiko dute.

Lagunak zein garrantzitsuak diren ere konturatuko dira, elkarri maitasuna eta indarra emanaz. Izan ere, ongi dakite tristurak eta pozak goxoagoak direla elkarrekin partekatzen direnean.

eskaerak
www.katxiporreta.com

Katxiporreta
KOOPE.

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404